

IMQ Urrea

Osasun-Asistentziako Asegurua

Baldintza Orokorrak
2024ko EREDUA



IMQ Urrea

Osasun-Asistentziako Asegurua

Baldintza Orokorrak

2024ko EREDUA



Osasun Plangintzako Zuzendaritza Nagusian erregistratua 230 zenbakiarekin. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Entitate Aseguratzailen Erregistro Berezian inskribatua 1960ko apirilaren 28ko MA betez (1980ko maiatzaren 21eko BOE). Legeak ezartzen dituen gordailuak eraturik. Erreserba osoa Espainian.

Aurkibidea

IMQ Urrea Osasun Asistentziarako Asegurua

1. artikulua	Atariko Klausula	5
2. artikulua	Definizioak	5
3. artikulua	Kontratuaren Oinarriak	9
4. artikulua	Aseguruaren Xedea	9
5. artikulua	IMQ Urrea Estalduraren deskribapena	9
6. artikulua	Baztertutako Arriskuak	18
7. artikulua	Gabezia Aldiak	22
8. artikulua	Zerbitzuak Emateko era	22
9. artikulua	Primaren Ordainketa	24
10. artikulua	Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea	25
11. artikulua	Aseguruaren Hartzaillearen eta/edo Aseguratuaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak	26
12. artikulua	Aseguratzaillearen bestelako betebeharrak	29
13. artikulua	Aseguruaren Iraupena	29
14. artikulua	Eskubideak galtzea. Kontratuaren Desegitea eta Eztabaiaezintasuna	30
15. artikulua	Datu Babesa	31
16. artikulua	Erreklamazio-eskariak eta kontrola. Bezeroarentzako Arreta Saila	34
17. artikulua	Eskumena	35
18. artikulua	Preskribapena	36
19. artikulua	Jakinarazpenak	36
20. artikulua	Urruneko kontratazioa	36

Osasun Asistentziarako Asegurua

Zerbitzu osoak
Ekintza Medikoko Ordainketa
Medikua aukeratzeko askatasuna

Aseguratuak parte-hartzen du zerbitzuen kostuan.

1. artikulua

Atariko Klausula

1. IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSek egiten duen jarduera aseguratzailea Espainiako Estatuaren kontrolpean dago. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatutako entitatearen kontrola egiteaz.
2. Kontratu hau honako hauek arautzen dute: Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean xedatutakoak (urriaren 17ko BOE); uztaillaren 14ko 20/2015 Legeak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzailen Antolamendu, Ikuskatze eta Kaudimenari buruzkoak; eta azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzailen ikuskatze eta kaudimenari buruzkoak; eta kontratu honi batzen zaizkion Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezietan hitzartzen denak; eta ez dute baliorik izango Aseguruaren Hartzailearen eta Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak aipatutako Aseguratuak beren beregi idatziz onartzen ez badituzte. Aipatutako onarpen horren premiarik ez dute izango legezko aginduen edo aginduzko araudien transkripzioek edo erreferentziek.
3. Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 3. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, letra beltzez nabarmentzen dira Baldintza Orokor hauetan agertzen diren eta Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak. Halaber, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, modu argi eta ulergarri deskribatzen dira kontratuan emandako bermeak eta estaldurak, hala nola horietako bakoitzari dagokionean, horiei eragiten dieten kanporatzeak eta mugak, tipografikoki bereiztuta.

2. artikulua

Definizioak

Kontratu honen ondorioetarako, definizio hauek ematen dira:

Istripua

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguratuaren asmorik gabeko gertaera bortitz, bat-bateko, ustekabeko eta kanpoko batek eragindako gorputzeko lesioa.

Urte naturala

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldia.

Aseguratu

Asegurua ezartzen zaion/zaien eta, Hartzailearen faltan, Kontratutik eratorritako betebeharrak beregan hartzen dituen/dituzten pertsona fisiko edo fisikoak.

Aseguratzailea

Kontratuaren bidez itunduriko arriskua bere gain hartzen duen pertsona juridikoa. Poliza honetan Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros, aurrerantzean Aseguratzailea.

Zerbitzuen katalogoa edo Koadro Medikoa

Osasun arloko profesionalen eta establezimenduen zerrenda editatua, bai Aseguratzailearenak propioak zein hitzartuak, helbidea, telefonoa eta ordutegia adierazita. Aseguru honen ondorioetarako Aseguratzailearen koadro medikotzat hartzen dira, bai zuzenean lan egiten duen tokian bai beste aseguru etxe batzuekin egindako hitzarmenen bidez egiten duenetan. Zerbitzuen

Katalogo bakoitzean, probintziako osasun profesionalen eta establezimenduen zerrendaz gain, estatu osoko aseguruarentzako informazio zerbitzuak eta arretarako telefonoak ere azaltzen dira.

Kopagoa

Bere Polizak bermatzen dituen osasun zerbitzuen ordainketan Aseguruak berak daukan partaidetzaren zenbatekoa (ekonomikoa). Aseguratu bakoitzari banaka ezartzen zaizkio zerbitzu horien erabileraren arabera eta Baldintza Partikularretan zehazten dira. Kopagoen zenbatekoa urtero eguneratu daiteke Baldintza Orokorren 10. artikuluan xedatzen denaren arabera: "Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea". Kopago orokorrak eta bereziak egon daitezke, osasun ekintza bakoitzari lotutako zenbatekoaren arabera.

Baldintza Partikularrak

Aseguratzen den arriskuaren alderdiak zehazten eta xeheki azaltzen dituen dokumentua, Poliza osatzen duena.

Osasun Galdetegia

Hartzaileak eta/edo Aseguruak Poliza egin aurretik egin eta sinatutako aitortpena eta Aseguratzailerak Aseguruaren xedea den arriskua baloratzeko baliatuko duena.

Primaren Sortzapena

Prima eratzten duen kopuruaren osotasunak Hartzailea Aseguratzaileraren zordun bihurtzen duen unea da. Lehenengo Prima Asegurua kontratatzen den unean sortzen da. Bigarren Prima eta Hurrengoak, Aseguruaren Kontratua tazituki edo berariaz luzatzen den urtealdi bakoitzaren hasieran sortzen dira.

Gaixotasuna

Istripu batek eragindakoak ez diren eta Aseguruaren osasunean ematen diren aldaketa mota guztiak, medikuak diagnostikatuak, osasun asistentzia behar dutenak eta lehen agerpenak Kontratua indarrean dagoela izan dituztenak.

Sortzetiko gaixotasuna, lesioa, akatsa edo malformazioa

Jaiotzeko unean dagoen hori da, bai herentziako faktoreen ondorioz bai haurdunaldian zehar jaiotza unera arte hartutako eritasunen ondorioz. Sortzetiko eritasuna jaiotze unean bertan agertu eta aitortu daiteke edo beranduago, Aseguruaren bizitzako edozein unetan, aurkitu daiteke.

Aurretik dagoen gaixotasuna

Aseguruaren kontratazio data baino lehen edo Polizan altan eman aurretik Aseguruak jasaten duen hori da.

Erizaina

Erizaintza jardueran aritzeko legez gaitutako eta prestatutako profesionala.

Primaren Ordainketaren Zatikapena

Aseguratzaileraren eta Hartzailearen artean, azken honen onuran, Baldintza Partikularretan jar daitekeen ordainketa erraztasuna da; horri esker, prima osoaren edo zati baten ordainketa sortzapean unea baino beranduago ordaindu daiteke. Primaren ordainketa zatitzeko ahalbideak ez du, inola ere, Prima zatigarria denik esan nahi.

Frankizia

Aseguruak Aseguratzailerari puntualki ordaindu behar dion zenbatekoa bere Polizaren barnean Aseguratuak erabilitako osasun-zerbitzuengatik. Zenbateko hori ezberdina da osasun zerbitzu eta/edo espezialitate mediko mota ezberdinen arabera eta bere kopurua, Baldintza Partikularretan zehazturik datorrena, urtero eguneratu ahal izango da Baldintza Orokorretako 10. artikuluan "Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea".

Ospitalea

Gaixotasunak edo gorputz lesioak tratatzeko baimen legala duten eta, modu anbulatorioan zein ingresu bidez, diagnostikoak eta ebakuntza kirurgikoak egiteko baliabideak dituzten establezimendu publiko edo pribatu guztiak. Establezimendu horietan mediku bat egongo da arreta emateko eguneko 24 orduetan, eta gaixoen edo lesionatuen ingresua bakarrik onartuko da.

Polizaren ondorioetarako, ez dira ospitaleztat hartzen hotelak, atsedenekuak edo eriondo-etxeak, bainuetxeak, babes-etxeak, bereziki gaixotasun kronikoak tratatzen dituzten instalazioak, alkoholismoa edo beste drogamenpekotasun mota batzuk tratatzen eta/edo desohitzen dituztenak, eta antzeko instituzioak.

Ospitaleratzea

- Ospitaleratze Orokorra. Pertsona bat ospitale batean gaixo bezala erregistratua agertzea eta gaua pasatzea edo bertan otordu nagusietariko bat egitea.
- Eguneko Ospitalea. Pertsona bat gaixo bezala erregistratua agertzea berariaz horrela izendatutako ospitaleko unitateetan, medikoak zein kirurgikoak edo psikiatrikoak, bertan tratamendu jakin bat jasotzeko edo anesthesiaren eraginpean egon izanagatik, gaua bertan pasatu gabe, otordu nagusietariko bat unitatean eginez edo egin gabe.

Ebakuntza Kirurgikoa

Helburu diagnostikoak edo terapeutikoak dituen edozein ebakuntza, ebakiz zein barneko esku-hartzerako beste modu batez, zirujau batek baimendutako zentro batean egindakoa (ospitalea edo ospitaletik kanpo), eta normalean ebakuntza gelaren erabilera eskatzen duena.

Material ortopedikoa

Gorputzeko itxuragabetasunak prebenitu edo zuzentzeko erabilitako pieza anatomikoak edo edozein izaeratako elementuak.

Osteosintesi materiala

Protesi mota, apurtutako hezuraren muturrak lotzeko edo artikulazio-muturrak soldatzeko pieza edo elementu metalikoez zein beste edozein motatako osatua.

Medikua

Medikuntzan aritzeko legez gaiturik dagoen Medikuntzan Lizentziatua.

Mediku Espezialista edo Espezialista

Legez aitortutako espezialitate medikoren batean bere profesioan jarduteko beharrezko titulazioa duen Medikua.

Gabezia Aldia

Polizaren bermeen baitan sarturik dauden estalduretariko batzuk eragingarriak ez diren denboraldia. Denboraldi hau hilabetetan zenbatzen da Poliza indarrean sartzen denetik eta bertan Aseguratutako pertsona bakoitzarentzat.

Eztabaidagarritasun Aldia

Poliza indarrean sartu denetik bertan Aseguratutako pertsona bakoitzarentzat zenbatutako denbora tarte zeinetan Aseguratzailerak prestazioen estaldurari uko egin diezaiokeen edo Kontratua ihardets dezakeen, Aseguratuak gaixotasunak aurretik izan eta Osasunari buruzko Galdetegian aitortu ez dituela argudiatuta. Hartzaileak eta/edo Aseguratuak doloz jokatu baldin badu, Aseguratzailerak ahalmen hori izango du epealdi hori igarota ere.

Poliza

Aseguruaren Kontratua arautzen duten klausulak eta itunak dituen dokumentua. Polizaren parte osagarriak eta banaezinak dira honako hauek: Baldintza Orokorrak, arriskua bereizten

duten Partikularrak, Bereziak, baldin baleude, eta berau osatzeko edo aldatzeko jartzen zaizkion Osagarriak edo Gehigarriak.

Prestazioa

Kontratua indarrean dagoen bitartean estalduraren xede den ezbeharra gertatetik eratorritako osasun asistentziaren kostua bereganatzean datza.

Prima

Aseguruaren prezioa. Prima bakarra, urtekoa eta alde zurretik ordaintzekoa da. Hala ere, zatika ordaintzea itundu ahal izango da, baina honek ez du, kasu batean ere, duen izaera banaezina eta urtekoa zatitu egiten denik esan nahi.

Lehenengo Prima da Asegurua kontratatzen deneko data eta hasieran aurreikusitako indarreko epearen amaieraren artean dagoen aseguru aldiari dagokiona, kalterik egin gabe kontratu egile bien arteko adostasunaz egindako luzapenei, isilpekoak zein berariazkoak. Arau orokor bezala, Aseguruaren kontratazio datatik urte bereko abenduaren 31ra arte Aseguratuzaileak ematen dion arrisku estalduragatik Polizaren Hartzaileak egiten duen kontraprestazioa izango da Lehenengo Prima.

Bigarren Prima eta Hurrengoak, isilpeko edo berariazko luzapenen ondorioz Aseguruaren Kontratua indarrean jarraitzen duen aseguraturutako bigarren urtealdiari eta hurrengo urtealdiei dagozkienak dira.

Prima urtero eguneratua izan daiteke Baldintza Orokorretako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera: "Polizaren Baldintza Ekonomikoen Urteko Eguneratzea".

Protesia

Lesionatutako organo, aparatu edo sistema baten gabezia (osoa edo zati batena), hala nola horren funtzio fisiologikoa denboraldi batean edo iraunkorki ordezteko erabiltzen diren edozein izaeratako elementu guztiak.

Ezbeharra

Polizak osorik edo zati batean estaltzen dituen osasun zerbitzuak erabiltzea beharrezko egiten duten ondorioak dituen gertaera.

Aseguratuaren Txartela

Aseguratuaren jabetzako dokumentua, Polizan sartuta dagoen Aseguratu bakoitzari luzatu eta ematen zaiona. Txartela pertsonala da, ezin da eskuz aldatu eta Polizak estaltzen dituen zerbitzuak jasotzeko erabili behar da.

Aseguruaren Hartzailea

Aseguratuzailearekin batera Kontratu hau sinatu eta bertan ezartzen diren betebeharrak, duten izaeragatik Aseguratuak berak bete behar dituenak izan ezik, bere gain hartzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Larrialdia

Bere osasunean kalte konponezina eman ez dadin bat-bateko izaera duen asistentzia medikoa beharrezko egiten duen Aseguratuaren egoera.

Hil ala biziko larrialdia

Pertsona baten bitzita hurreko arriskuan jartzen duen eta berehalako jarduera medikoa behar duen egoera oro.

3. artikulua Kontratuaren Oinarriak

Kontratu hau Aseguruaren Hartzailerak eta/edo Aseguratuak Aseguruaren Eskarian eta bere osasun egoerari buruzko Osasun Galdetegian egindako adierazpenetan oinarritzen da. Aipatutako adierazpenak Aseguratzailerak Kontratu honen arriskua onartzeko oinarria osatzen dute eta osotasun bakar bat eratzen dute.

Ondorioz, kontratatzeko baldintzak honakoak dira: Aseguratuak bere kontura onartzea alde zuzeneko azterketa medikoa eta/edo Aseguratzailerak ezarritako Osasun Galdetegia-Aitorpena betezea. Aseguratzailerak berarentzat gordetzen du kontratatzeko askatasuna.

Poliza honen bermeak kontratatzeko adin muga hirurogeita sei (66) urteko da. Aseguratuak adin hori betetzen duen urteko abenduaren 31ra arte kontratatu ahal izango du poliza.

Aseguratzailerak Hartzailerari Poliza emango dio. Poliza hori osatzen dute Baldintza Orokorrek, Partikularrek eta Bereziek, baleude, eta Aseguratuaren Txartelak.

4. artikulua Aseguruaren Xedea

Polizak ezartzen dituen mugen eta baldintzen barruan, eta kasuan kasuan dagozkion Prima, kopago eta frankiziak ordainduta, Aseguratzailerak konpromisoa hartzen du Aseguratuari dagokion asistentzia medikoa, kirurgikoa eta ospitalekoa emateko 5. artikuluan jasota dauden era guztietako lesio eta/edo gaixotasun guztietan, baldin eta sartutako espezialitate, osasun-prestazio eta bestelako zerbitzuen artean badaude. Horrela, zuzenean ordainduko dizkie ordainsariak eta zerbitzuen tarifak asistentzia ematen duten Profesionalei eta Osasun-Zentroei.

Edonola ere, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 103. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aseguratzailerak zuzenean hartzen du bere gain larrialdi izaera duen beharrezko asistentziaren kostua, Polizaren baldintzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Polizak estalitako osasun-asistentzia Aseguratzaileraren Koadro Medikoaren bidez baino ez da burutuko, Aseguratzailerak berak hitzartutako Zentroetan.

Poliza honek Poliza bera indarrean sartzen den unean erabiltzen diren teknologia eta metodologia medikoak bermatzen ditu. Aseguruaren estalduran ez dira sartuko tratamendu mediko, kirurgiko eta diagnostikoetarako ekartzen diren teknologia berriak, Aseguratzailerak Baldintza Orokorretan berariaz horrela adierazi eta primaren tarifen beharrezko egokitzapenak egiten ez diren bitartean.

Osasun asistentziako Aseguru honetan ez da diruzko kalte-ordainik onartuko Polizak estaltzen dituen osasun asistentziaren zerbitzuak ematearen ordez.

5. artikulua IMQ Urrea Estalduraren deskribapena

Estalita dauden espezialitate, osasun-prestazio eta bestelako zerbitzuak, Polizaren estaldura bera adierazten dutenak, Baldintza Partikularretan adierazitakoak dira, hala nola etorkizunean erantsi eta/edo aldatu ahal direnak kasuan kasuan dagokion prima gehigarria aplikauta, beti ere honako honetan oinarrituta:

Urrea Poliza

Ondoren berariaz aipatzen diren prestazioak hartzen ditu:

I. Lehen Mailako Arreta

Medikuntza Orokorra edo Familiakoa

Kontsultan eta etxean.

Pediatría

Kontsultan, hamalau (14) urtera arte.

Erizaintza Zerbitzua

Kontsultan eta etxekoa. Azken kasu honetan Aseguratzailaren Koadroko mediku batek **aldez aurretik aginduta**.

II. Espezialitateak

Alergologia

Analisi Klinikokoak

Anatomia Patologikoa

Anestesia eta Erreanimazioa

Angiologia eta Hodietako kirurgia

Barne hartzen du laser baskularra barize-tratamendurako, **betiere arrazoi estetikoengatik ez bada** (2).

Digestio Aparatua

Honako hau barne hartzen du: digestio bide osoan, 2 zentrimetrotik gorako lesio aurre-gaizto eta gaiztoak erazteko mukosa azpiko disezio endoskopikoa. Betiere ohiko polipektomia baztertu bada eta tratamendu kirurgikoa behar bada (2).

Kardiologia

Kirurgia Kardiobaskularra

Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa

Barne hartzean da kirurgia robotikoa, dagokion frankiziari lotua, baita obesitatearen kirurgia ere, **teknika endoskopikoak salbu**, gainbegiratutako tratamendu kontserbatzaileak porrot egin duen pazienteen kasuan, 40 kg/m² edo gehiagoko gorputz-masaren indizea dutenak, edo 35 edo gehiagokoa dutenak komorbilitate handiagoekin lotura baldin badu. Azken kirurgia mota hori ere dagokion frankiziari lotua izango da, Aseguratzailak berariaz izendatutako zentroetan (2).

Aurpegi-masailetako Kirurgia

Baztertu egiten dira hezur txertaketak eta txertaketa osteointegratuak, protesiak eta tratamendu periodontalak, preinplantologikoak zein protesikoak, baita helburu horiekin eskatutako proba diagnostikoak eta gainerako teknikak ere.

Kirurgia Pediatrikoa

Kirurgia Plastikoa Konpontzailea

Kirurgia estetiko hutsa alde batera utzita, betiere erabateko mastektomia ostean kaltetutako bular onkologikoa berreraikitzeko eta bular kontralateral osasuntsua birmoldatzeko ez bada, **azken hori kirurgia onkologikotik urtebeteko (1) gehienezko mugarekin (2).**

Frankiziari lotutako mastektomia osteko bularraren berreraikuntzarako teknika mikrokirurgikoa barne (2).

Barne hartzen du bularreko hipertrofiaren kirurgia **soilik** bular bakoitzean gutxienez 500 gr erauzi behar direnean, 28 cm-ko edo gehiagoko jugulum-titiburua, 160 cm-ko batez besteko garaierarekin (altuerara egokituta) eta bularreko hipertrofiak eragindako edo larriagotutako dorsalgia dutenean (2). **Aurreko irizpideak bete arren, GMI > 30 duten pazienteek, 18 urtetik beherakoek edo haurduntza planteatzen dutenek ezingo dute kirurgiari egin.**

Toraxeko Kirurgia

Toraxeko kirurgian, barne hartzen du kirurgia robotikoa, frankiziari lotua, Aseguratzailerak berariaz izendatutako zentroetan (2).

Dermatologia eta Benerologia

Irudi bidezko diagnostikoa

Ohiko **teknikak baino ez** ditu estaltzen, hala nola Erradiologia Orokorra, Ekografiak, Mamografia Konbentzionalak eta Hezur dentsiometria (1). Kontraste baliabideak Aseguratzaileraren kontura izango dira.

Endokrinologia eta Nutrizioa

Ginekologia eta Obstetria

Barne hartzen ditu DIUren ezarpena (1), (dispositiboaren kostua barne, dispositibo hormonal frankiziari lotuta egongo delarik), ernalezintasunaren eta antzutasunaren azterketa eta diagnostikoa (1) eta Tronpen Lotura (2). Ginekologiako kirurgia robotikoa barne hartzen du, dagokion frankiziari lotua (2).

Hematologia eta Hemoterapia

Barne-medikuntza

Medikuntza Nuklearra

Microbiologia eta Parasitologia

Nefrologia

Hemodialisiak barne hartzen ditu (3).

Pneumologia

Kanpoan geratzen dira loaldiko arnasketa nahasketen tratamendua, CPAP eta BIPAP.

Neurokirurgia

Honako hauek barne hartzen ditu: Erradiokirurgia eta Kirurgia Estereotaxikoa, Parkinsonaren Kirurgia eta Epilepsiaren Kirurgia (4). **Ez du barne hartzen Bizkarrezurreko kirurgia endoskopikoa.**

Neurofisiologia Klinikoa

Kanpoan geratzen da burmuineko Kartografia (Mapping).

Neurologia

Odontologia

Soilik daude estalita: sendabide estomatologikoak eta erauzketak, urtean aho garbiketa bat, eta xede hauetarako erradiografiak. Tratamendu periodontala ere sartzen da: arraspateak eta berdintze erradikularrak, urteko lau (4) koadrante **gehienez ere** (1).

Oftalmologia

Barne hartzen ditu Kornearen transplantea (4) (**transplantatu beharreko kornea Aseguratuaren kontura izango da**) korneako cross linking-a (**kanpo geratzen da edozein errefrakzio-kirurgiaren ondoriozko ektasia izanez gero**), adinari lotutako makula-endekapenaren tratamendua terapia fotodinamikoaren bidez eta farmakoien injekzioa beirazko barrunbean (**azken bi kasu horietan, erabilitako botiken kostua Aseguratuaren kontura izango da**) (2). **Honako hauek alde batera geratzen dira: Miopia, Astigmatismoa, Hipermetropia eta beste errefrakzio- alterazioen zuzenketa.**

Onkologia

Otorrinolaringologia

Psikiatria

Psicoterapia: **urteko hogeit (20) sesio gehienez (3). Kanpoan geratzen dira psikoanalisi, terapia psikoanalitikoak eta test psikologikoak. Halaber, hipnosia, narkolepsia eta sofrologia ere kanpoan geratzen dira.**

Erreumatologia

Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoa

Barne hartzen du robotak lagundutako belaun-protetikoko kirurgia, frankiziari loturikoa, Aseguratuzaileak berariaz izendatutako zentroetan (2). **Bizkarrezurreko kirurgia edoskopikoa alde batera utzita.**

Urologia

Vasectomia eta laser berdearen fotobaporizazioa barne hartzen ditu (2).

Frankiziari lotutako Urologian kirurgia robotikoa barne hartzen du (2).

Arrisku klinikoaren susmoagatik prostatak biopsia barne hartzen du, betiere honako baldintzak betetzen badira: aurretiko EMN (Erresonantzia Magnetiko Nuklearra) multiparametrikoko positibo bat eta aurretiko ohiko biopsia negatiboa izatea, **proba hau eskatu baino urtebete (1) lehenago gehienez**, eta prostatak minbiziaren susmo sendoak irauten badu (PSA-k goranzko joera iraunkorra izatea) (2).

III. Ospitalizazioak

Ospitalizazio Medikoa (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2).

Ospitalizazio Pediatrikoa (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2).

Halaber, neonatologia unitatean ospitalizazioa ere barne hartzen du, **urte naturaleko hogeita hamar (30) egunez, gehienez ere (2).**

Obstetrikiako Ospitalizazioa (Erditzea)

Barne hartzen du obstetrikiako espezialistak eta emaginak artatutako erditze arruntetako asistentzia, anestesia epidurala eta guzti (2). **Kanpoan geratzen dira espreski uretako erditzeak, etxeokak eta baliabide alternatiboak erabiltzen dituztenak.**

Kanpoan geratzen dira jaiotzeke dagoen haurren interbentzio kirurgikoak.

Halaber, Aseguratzaillearen kontura izango da RHaren aurkako Txertoa (2), aseguratuari klinikan dagoela ipiniko zaiona, erditu eta berehala.

Ospitalizazio Psikiatrikoa

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena **urte naturaleko hirurogei (60) egun artekoa izan daiteke, jarraian zein tartekatuta (2)**. **Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ez dira barne hartzen toxikomanien edo drogamenpeketasunen ondoriozko ospitalizazioak, ez eta nortasunaren nahasmenduek eragindakoak ere.

Ospitalizazio Kirurgikoa

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2).

Ospitalizazioa Unitate Koronarioan (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2). **Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ospitalizazioa Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2). **Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ospitalizazioa, kasu guztietan, Hitzartutako Zentroetan izango da, banakako gelan, eta mantenua, sendatzeak eta materiala, ebakuntza gela izateko eskubideak, anestesia eta sendagaiak barne hartzen ditu. Lagunarentzako ohea ere sartzen da (2), **beren beregi baztertutako kasuetan izan ezik.**

Etxeko Ospitalizazioa

Ingresu baten ondoren, betiere ospitalizazio Klinikoa ordezkoa edota jarraipena denean eta gaixoaren ardura duen profesionalak aginduta denean **eta Aseguratzailleak adierazita badauka zerbitzu hori leku horretan ematea (2)**.

IV. Beste Metodo Terapeutiko batzuk

Endoskopia aurreratua (2)

- Disekzio submukosoa (2).
- Mukosektomia (2).
- Irrati-maiztasuneko ablazioa (E. Barret) (2).
- Zenkerreko dibertikulua, erresekzio endoskopikoa (2).
- Zulo fistuloso (bide endoskopikoa) (2).
- CPAE: kolangiopankreatografia anterogradioa ekoendoskopia bidez (2).
- Kistogastrostomia – Kistoduodenostomia Endoskopikoa (2).
- CPRE ekoendoskopiaekin (2).
- Nekrosektomia pankreatiko endoskopikoa (2).

Fisioterapia eta Errehabilitazioa (3)

Barne hartzen dituen errehabilitazioak:

- Lokomozio-aparatua izaera anbulatorioarekin eta lokomozio-aparatuko jatorrizko afekzioetarako **bakarrik** sartzen da, betiere prozesu kroniko edo degeneratibo bat ez bada,

Aseguratuzaileak hitzartutako mediku batek agindu ondoren. Aseguratuzaileak izendatutako zentroetan emango da beti. Ospitaleratze erregimenean, kirurgia ortopedikoaren ondoriozko lokomozio-aparatua berreskuratzeko **bakar-bakarrik** emango da. Etxeko erregimenean, Aseguratuzaileak hitzartutako mediku batek agindu ondoren **bakarrik eta betiere Aseguratuzaileak zerbitzu hori leku horretan ematea hitzartuta badu.**

- Linfadenektomia osteko drainatze linfatikoa, **ebakuntzaren ondorengo hemezortzi (18) hilabeteen barruan.**
- Pelbis-zorua. Erditze ondorengo pelbis-zoruaren errehabilitazioa dagokion frankiziari lotuta egongo da, eta Aseguratuzaileak espreski adierazitako zentroetan burutuko da.
- Arnas fisioterapia, toraxeko eta bihotzeko kirurgiarekin lotutakoa bakarrik eta **prozesu bakoitzeko gehienez hogeitun (20) saio.**
- Bihotzeko errehabilitazioa erregimen ambulatorioan; **aseguratuzaileak espreski adierazitako zentroetan burutuko da.**

Elektroterapia barne dago(1): uhin laburra, izpi infragorriak, izpi ultramareak.

Ez dira sartzen mantentze-terapiak eta terapia okupazionalak, ez eta gaixotasun kronikoen, sortzetikoen, neurologikoen eta degeneratiboen errehabilitazioa ere.

Hemodinamika Baskularra (2)

Litotrizia (3)

Giltzurrunetakoa eta muskulu-eskeletikoa bakarrik.

Logofoniatria (3)

Barne hartzen ditu jatorri organikoko afekzioen batek eragindako nahasmenduen tratamenduak. Estalduraren xede diren tratamenduak urteko **laurogeita hamar (90) saio** muga daukate. **Jatorria edozein dela ere, kanpoan geratzen da lengoaiaren nahasmenduen prebentzioa, azterketa eta zuzenketa. Halaber, kanpoan geratzen da, ahotsaren eta horren mekanismoaren erasanaren gaineko terapia, sortzetikoak, psikikoak, neurologikoak eta endekapenezkoak diren patologietan, lehen mailako zein bigarren mailako jatorria izan.**

Nutrizio Parenterala

Ospitalean.

Onkologia

- Kimioterapia, ingesatuta zein eguneko ospitalean. Aseguratuzaileak merkatu nazionalen eta produktuaren fitxa teknikoan agertzen diren aginduetan Osasun Ministerioak baimenduak diren eta bide parenteralez ematen diren medikamendu zitostatikoen gastuak (2) **baino ez ditu hartuko. 6 artikularen 23 atalarekin bat, berariaz utzi dira estalduratik kanpo antigorputz monoklonalak.**
- Erradioterapia, ambulatorioa eta ospitalekoa(2).

Barne hartzen ditu intentsitate modulatuak tratamenduak eta erradiokirurgia estereotaxikoko tratamenduak, garezur barruan eta garezur kanpoan; betiere Aseguratuzaileak berariaz izendatutako zentroetan ematen badira. Kanpoan geratzen dira protoiterapia eta neutronterapia.

Oxigenoterapia, Bentiloterapia eta Aerosolterapia (1)

Ambulatorioa eta etxekoa. **Medikazioa Aseguratuaren kontura izango da.**

Erradiologia Baskular Interbentzionista (2)

Psikoterapia (3)

Urtean gehienez ere hogei (20) saio. Aseguratzaileren Koadroko psikiatra batek **aurretik aginduta. Psikoanalisi, terapia psikoanalitikoak eta test psikologikoak kanpoan geratzen dira. Halaber, hipnosia, narkolepsia eta sofrologia ere kanpoan geratzen dira.**

Hezur muinaren edo Stem Cell transplantea (4)

Transfusioak

Odola eta plasma, ebakuntza-gela barruan eta kanpoan (2).

Minaren Unitatea (2)

Material ezgarriak barne hartzen ditu (4), eta **kanpoan uzten ditu mota guztietako sorgailuak.**

V. Diagnosirako beste metodo batzuk

Diagnosirako beste baliabide batzuk

Elektrokardiogramak, Entzefalogramak, Holter (1), Esfortzu-proba (1), Eko-intrakabitariora, Ekokardiogramak, Doppler eta Kardiotokografia haurdunaldian eta erditze unean (2). Elikadura-intolerantziaren testa edo proba (sibo eta azukreak), Aseguratzaileren taulako digestio-aparatuko Espezialistek digestio-patologia adierazten duten pazienteentzat **soilik.**

Goi mailako teknologiako baliabide diagnostikoak

- Arteriografia Digitala (DIVAS) (1).
- Kapsula endoskopikoa (1).
- Koronariografia (2).
- Estres Ekoa (1).
- Doppler Ekoa (1).
- Ekokardiografia transesofagikoa (E.T.E.) (1).
- Endoskopia (1).
- Gammagrafia Dat-Scam barne (1).
- Mamotomia (MIBB) (2).
- Mikrobiopsia (1).
- Neuronabegatzailea eta ebakuntza barruko monitorizazio neurofisiologikoa: burezur barruko ebakuntzetan neuronabegazio kirurgiko ez-robotikoa barne. **Ez dira sartzen nabigazio kirurgikorako beste indikazio batzuk.** Barne hartzen du ebakuntza barruko monitorizazio neurofisiologikoa interbentzio berean eta tiroide- eta paratiroide-kirurgietan eta aurpegi-nerbio periferikoaren arriskuan (2).
- PET/OTA onkologikoa (3) Medikamenduen eta Osasun-Produktuen Espainiako Agentziak 18-fludesoxiglucosa (18 FDG) erradiofarmakoarekin baimendutako jarraibideetan, eta 18F-Colina erradiofarmakoa Aseguratzailak berariaz emandako jarraibideetan eta izendatutako zentroetan.
- Prostatako Minbizirako PET PSMA (3), Medikamenduen eta Osasun-Produktuen Espainiako Agentziak baimendutako jarraibide klinikoetan, Aseguratzailak berariaz izendatutako zentroetan eta dagokion frankiziari lotua.
- Gaueko Polisomnografia (2).
- Haurdunaldian malformazioak antzemanteko probak (2): **amniozentesia edo biopsia korionikoa bakarrik.** Amaren odolearen jaitzte aurretiko diagnostiko genetikoa,

frankiziari lotuta, honakoak barne hartzen ditu: amaren odoleko oinarrizko DNA-testa 13,18,21 trisomien diagnostikorako eta zazpi (7) mikrodelekzio sindrome aztertzeko hedatutako fetu-DNA proba (2).

- Erresonantzia Magnetikoa (1). Kontraste baliabidea Aseguratzaileren kontura izango da.
- Eskaner eta TAC 64 (1). Kontraste baliabidea Aseguratzaileren kontura izango da.
- Oncotype eta Mammaprint bularreko minbiziaren plataforma genomikoa medikuak egokietsita dagoenean eta **diagnostikorako edota pazientearentzako tratamendu bat zehazteko ezinbestekoa denean baino ez.** (2)

VI. Beste zerbitzu batzuk

Anbulantzia

Aseguratua bizi den probintziaren barruan, egoera fisikoak hala eskatzen duen pazienteentzat, ohiko bizilekutik probintzia bereko Hitzartutako Zentroetara eraman beharra badago, ospitalean ingresatzeko zein larrialdietako asistentzia emateko. **Edonola ere, Aseguratzailak hitzartutako Medikuek edo Larrialdi Zentroak idatziz egindako eskaera edo agindua beharrezkoa izango da. Etxera buelta Aseguratuaren kontura izango da**, balioezintasun egoera berdinak irauten duen kasuetan izan ezik.

Garraioa, kasu guztietan, lurrez egingo da eta osasun ibilgailuan medikuaren ustetan erabat beharrezkoa denean bakarrik egingo da. **Zerbitzu honen estalduran, kasu batean ere ez da sartzen ez Fakultatibo baten ohiko kontsultara joatea, ezta Dialisi, Errehabilitazio, Erradioterapia, Elektroterapia eta abarreko tratamenduak hartzera joatea ere.**

Habia (2)

Jaioberriarentzat, amatasunagatiko ospitalizaio obstetrikokoak dirauen bitartean.

Podologia

Gehienez hiru (3) anbulatorio-saio urtean.

Erditzeko prestakuntza (2)

Fisioterapiako osasun-programa

Aseguratuarentzat eskuragarri, **app-aren eta Aseguratzailak berariaz izendatutako bitartekoen bidez.**

Protesi finkoak (4)

Aseguratzailak adierazitako enpresek hornituak izango dira beti, eta Aseguratzaileren kontura izango dira ondoren zehazten diren barne protesi finkoak bakarrik:

- Traumatologia: Barneko protesi traumatologikoak, barneko osteosintesi materiala eta ehun-banku nazionaletatik ateratako material osteoligamentoso biologikoa barne.
- Aparatu Kardiobaskularra: Balbula Kardiakoak (**beren beregi kanpoan geratzen dira larruazalean zehar sartutakoak eta transapikalak**), stent, bypass baskularra, endoprotesi baskular estandarrak, aldi baterako edo behin betiko taupagailua **MRI eta edozein desfribiladore mota izan ezik.**
- Digestio Aparatua: Endoprotesia.
- Ginekologia: bular-protesia eta larruazal hedagailuak, jatorri neoplasikoko mastektomia ostean kaltetutako bularra berreraikitzeke eta bular kontralateral osasuntsua birmoldatzeko, **azken hori kirurgia onkologikotik urtebeteko (1) gehienezko mugarekin.**
- Neurokirurgia: Deribazio-balbulak.

- Oftalmología: Begi-barneko lenteak (monofokalak eta bifokalak), katarata-kirurgiaren ondoren afakia zuzentzeko, **lente torikoak, lerrun zabaleko monofokalak, EDOF lenteak (foku hedatuaren sakontasunekoak), trifokalak eta ikusmen-zuzentasun gehigarria duten beste lente batzuk izan ezik**. Lente bifokala frankiziaren mende egongo da.
- ORL: Tinpano protesia, belarri ertaineko protesia, osikularra berreraikitzeko (mailua, ingudea eta estribua).
- Urologia: orkiektomiaren osteko testikula-protesiak, tumore-prozesuaren edo barrabil-bihurduraren ondoren **soilik**.
- Kimioterapia edo Minaren Tratamendua: gordailuak
- Beste material kirurgiko batzuk: sabeleko sare estandarrek eta gernu-inkontinentziarako esekidura urologiko estandarreko sistemak.

Beste edozein motatako protesia, inplante kirurgiko, material biologiko edo sintetiko, pieza anatomiko eta ortopedikoen kostua Aseguratuaren kontura izango dira.

Laguntza bidezko ugalketa (4)

Bikotearen antzutasunerako edo ernalezintasunerako tratamendua. **Zerbitzu hau jaso ahal izateko** beharrezkoa izango da **bikotekide biak poliza honetan Asegurudun izatea eta dagokion gabealdiaren mende ez egotea, bietako inork kirurgia antikonzeptiborik egina ez izatea (basektomia edo tronpen lotura), emakumeak berrogeita bi (42) urteak beteta ez izatea eta bikoteak elkarrekin aurretik ume osasuntsurik ez izatea.**

Frankiziara lotutako estaldurak:

Estaldurarako baldintzak hurrengoak dira:

- Intseminazio artifiziala, bikotearena edo emalearena: **hiru (3) saiakera**. Barne hartzen dira kontsulta ekografikoak, obulutegiaren estimulazioa, gaitasun seminala eta koitoaren osteko testa.
- In vitro ernalketa, obulu-emalearekin edo gabe: **bi (2) saiakera**. Barne hartzen dira kontsultak, ICSa (espermatzoide-mikroinjekzioa), ekografiak, obulutegien estimulazioa, gaitasun seminala, folikuluen zitzada eta enbrioien transferentzia.
- Laguntza bidezko ugalketa teknika horiek indarrean dagoen uneko legeriari lotuta egongo dira. **Espermatozoideak eta obozitoak ematearen kostuak alde batera utziko dira.**

Bigarren Iritzi Medikoa

Mundu mailan entzute handiko Espezialisten iritzia ezagutzeko aukera ematen du, **gaixotasun larria denean** diagnostikoa eta tratamendua egiaztatzeko. Aseguratuak Bigarren Iritzi Medikoa txostena jasoko du etxean. Zerbitzu hau Aseguratuak ezarritako baldintzekin bat etorri emango da.

Telemedikuntza

Aseguratuarentzat eskuragarri, **app-aren eta Aseguratuak berriaz izendatutako bitartekoen eta profesionalen bidez.**

Larrialdietako Zerbitzu Iraunkorra

Aseguratuak Koadro Medikoan adierazitako Zentroetan. Asistentzia etxean emango da gaixoaren egoera hala eskatzen duenean, eta orotariko medikuak eta/edo erizaintza zerbitzuak emango du.

Larrialdiak noizean behingo edo aldi baterako lekualdaketetan

Aseguratuaren lurralde eremutik kanpo eta lurralde nazionalaren barruan, Aseguratuak eta/edo bere Entitate Laguntzaileek hitzartutako Zentroetan, Aseguratuaren Koadro Medikoan biltzen denaren arabera.

Larrialdiak atzerriko bidaietan

Horretarako Aseguratuak **estaldura** baldintzak zehazten dituen **ziurtagiria** eskuratu beharko du.

VII. Prebentzio-medikuntza

Honako prebentzio-kontrol espezifiko hauek sartzen dira, eskuarki onartutako protokoloen arabera, Aseguratuaren adinari egokituak, aseguratzailearen koadro medikoko fakultatibo batek agindutakoak eta polizaren bermeak estalitako baliabide eta teknikekin egindakoak, hainbat jarduera barne hartzen dituztenak, hala nola kontsulta medikoa, miaketa fisikoa eta gaixotasunen diagnostiko goiztiarrerako oinarritzko proba diagnostikoak. Proba diagnostikoak aurreko epigrafeetan kasu bakoitzean ezartzen diren gabezia aldien mende egongo dira:

- **Pediatria:** Espezialistarekin aldiari behin kontsultatzea, jaioberriaren osasun-azterketak (metabolopatiak detektatzea eta hipoakusia goiz detektatzea barne, otoemisia akustikoen bidez) eta aldizkako osasun-azterketak, haurren garapena kontrolatzeko.
- **Digestio-aparatua:** Espezialistarekiko kontsulta eta miaketa fisikoa barne hartzen ditu, baita oinarritzko proba diagnostikoak ere, hala nola gorozkietan ezkutatutako odolaren testa edo kolonoskopia.
- **Kardiologia:** arrisku koronarioaren prebentzioa, Espezialistarekin kontsultatzea eta miaketa fisikoa barne, bai eta oinarritzko proba diagnostikoak ere, medikuaren irizpidearen arabera, hala nola EKG, odolaren eta gernuaren oinarritzko analisia eta esfortzu-proba.
- **Neumologia:** Espezialistarekin kontsultatzea eta miaketa fisikoa, bai eta oinarritzko proba diagnostikoak ere, hala nola toraxeko erradiografia.
- **Ginekologia:** azterketa ginekologikoa barne hartzen du, bularreko minbizia, endometrioa eta zerbixa prebenitzeko. Era berean, Espezialistarekiko kontsulta eta miaketa barne hartzen ditu, baita oinarritzko proba diagnostikoak ere, hala nola ekografia, mamografia, zitologia eta giza papilomaren birusak.
- **Urologia:** Espezialistarekin mediku-kontsulta egitea, oinarritzko odolaren analisia (prostata-antigeno espezifikoa – PSA – eta gernua zehaztea barne) eta oinarritzko beste proba diagnostiko batzuk, hala nola ekografia.

Azterketa horien maiztasuna aldatu egiten da kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera; beraz, espezialistari dagokio gomendioak ezartzea arriskuaren arabera eta polizak estalitako bermeen arabera.

Aseguratzaileak Baldintza Partikularretan Aseguratu bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa ezartzeko aukera izango du, eta urtero eguneratu ahal izango da, "Polizaren Baldintza Ekonomikoak urteko Eguneratzea" delakoaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

VIII. Gabezia Aldi Orokorrak

(1) = 6 hilabete (2) = 8 hilabete (3) = 12 hilabete (4) = 18 hilabete

6. artikulua

Baztertutako Arriskuak

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira:

- 1) Lan istripuetatik eta gaixotasun profesioletatik eratorritako osasun asistentzia, baldin eta Aseguratua estaltzen duen aseguru berezi bat edo erantzule zibila den hirugarren bat badago.
- 2) Osasunaren Sistema Nazionalean sartzen diren Zentroetan emandako osasun asistentziatik eratorritako gastuak, Zentro jakin batzuetan berariaz hitzartutako asistentziatik eratorritakoak izan ezik.
- 3) Hurrengo ondorior gertatzen direnak: guda zibilak, nazioartekoak edo kolonialak, inbasioak, matxinadak, erreboltak, mutinak, altxamenduak, errepresioak, terrorismoko edo maniobra militarren ekintzak (bake garaian ere); erradiazioarekin edo erreakzio nuklearrarekin edo kutsadura erradioaktiboarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa dutenak, hala nola lurrikara, uholde, sumendi erupzio eta gainontzeko fenomeno sismiko edo meteorologikoetatik eratorritakoak eta ofizialki aitortutako izurriteek sortutakoak.
- 4) Aurretik eta/edo sortzetiko gaixotasun, akats edo deformazio guztietatik eratorritako osasun-laguntza, eta asegurutun bakoitza polizan sartu aurretik gertatutako istripu edo gaixotasunen ondoriozkoak, bai eta asegurutunak ezagutzen dituen eta osasun-galdetegian asegurudunak deklaratu ez dituen gaixotasunetatik erator daitezkeenak ere.

Aseguruaren Hartzailak, bere izenean zein Aseguratuen izenean, dagokion aurretiko azterketa medikotik at, Aseguru Eskaera sinatzeko unean, Aseguratu bakoitzak edozein motatako lesio edo gaixotasunik izan duen adierazi behar du, batez ere izaera errepikagarria dutenak eta sortzetikoak direnak edo azterketak, proba diagnostikoak eta edozein motatako tratamenduak behar edo behar izan dituztenak; baita harpidetzaren unean jasaten ari diren patologiaren baten hasieratzat har daitezkeen sintomak edo seinaleak ere.

Aseguratzailaren esku egongo da eskatzailea/eskatzaileak onartzea edota ezeztatzea.

Baldintza honetako lehenengo paragrafoan zehaztutako bazterretik kanpo geratuko dira aurretiko eta/edo jaiotzetiko gaixotasun, lesio, akats edo deformazioak baldin eta Hartzailak eta/edo Aseguratuak Osasun Galdetegian aitortu eta Aseguratzailak horien estaldura onartu badu Polizaren Baldintza Partikularretan.

- 5) Tokikomanietatik edo drogamenpekotasunetik eratorritako eta horiei lotutako osasun asistentzia, psikiatrikoa barne, eta nortasunaren nahastetik eta autolesioetatik, mozkorkeriatik edo liskarretatik (norberaren defentsan izan ezik) edo buru-hilketa saiaketatik eratorritakoa.
- 6) Aseguratuak bere kabuz eta zuzenean, hau da, aseguratu izaera horretatik at eta Asegurua bera aipatu gabe, eskatutako zerbitzu profesionalak edo osasun establezimenduak, nahiz eta horiek Aseguratzailaren Koadro Medikoa sartuta egon, eta zerbitzu horiek eskatzea eragin zuen ondoezetik edo eritasunetik eratorritako jarduera guztiei emandako zerbitzuak.
- 7) Ospitaleratze erregimenetik kanpoko medikamenduak eta produktu kimiko/farmazeutikoak. Halaber, kanpoan geratzen dira, bai erregimen ambulatorioan bai Ospitalean, era guztietako txertoak (RHaren aurkako txertoa izan ezik), giza jatorriko sendagaiak, eta hemofiliaren tratamendua, toxina botulinikoa eta azido hialuronikoa. Terapia aurreratuko sendagaiak alde batera utziko dira.

- 8) Sexu bietan ernalezintasuna eta antzutasuna konpontzera bideratutako tratamendua (kirurgia barne), "in vitro" ernalketa, intseminazio artifiziala, etab. (zerbitzuen deskribapenean espresuki sartutako tratamenduak izan ezik) eta haurdunaldiaren borondatezko etendura, hala nola aipatutako tratamenduekin zerikusia duten proba diagnostikoak.
- 9) Kanpo geratzen dira inpotenziaren azterketa, diagnostikoa eta tratamendua (kirurgia barne), hala nola sexu-aldaketaren kirurgia, baita kirurgia profilaktikoa ere.
- 10) Organoen, ehunen, zelulen edota osagaien transplanteak, salbu eta medularen transplante autologoa eta kornearen transplantea, baldin eta Polizaren zerbitzuen deskribapenean sartuta badago. Edonola ere, kasu horietan bietan estalduratik kanpo geratzen dira transplantatu beharreko organoa lortzea eta horrekin lotutako kudeaketa guztiak.
- 11) Izaera estetikoak edo kosmetikoak baino ez duten ekintzen diagnostikoa, ebakuntzak, infiltrazioak eta tratamenduak, hala nola beste edozein jarduera. Horrez gain, kanpo geratuko dira ebakuntza, infiltrazioa edo tratamendu estetiko edo kosmetiko hutsa egin izanagatik zuzenean edota nagusiki sortutako konplikazioen ondoriozko proba diagnostikoak edo tratamenduak. Era berean, kanpo geratzen dira, helburu estetikoak duten ile tratamenduak.
- 12) Edozein mota eta izaeratako protesiak (osteosintesi-materiala barne), inplante kirurgikoak, kanpoko finkagailuak, material biologiko zein sintetikoak, hala nola pieza anatomikoak eta ortopedikoak, Aseguratuaren kontura izango baitira, salbu eta Polizaren zerbitzuen deskribapenean agertzen badira.
- 13) Bidaia eta lekualdaketen ondorioz sortutako gastuak, anbulantziarenak izan ezik, zerbitzuen deskribapenean aipatzen diren terminoetan. Halaber, kanpo geratzen dira Aseguratua Zentrora garraiatzeak eragiten dituen gastuak, eta alderantziz, errehabilitazio, fisioterapia, dialisi, erradioterapia, etab. kasuetan.
- 14) Miopia, Astigmatismoa eta Hipermetropiaren hala nola errefrakzioaren beste edozein arazoren zuzenketa kirurgikoa edozein baliabide edo teknikaren bidez.
- 15) Edozein kirolaren praktika profesionaletik edota jarduera edo kirol txapelketetan oro har amateur gisa parte hartzetik eratorritako osasun-asistentzia, bai eta ageriz arriskutsuak diren edo arrisku handikoak diren jardueren praktika ez-profesionala ere; eta, bereziki, hurrengo jardueretatik eratorritakoak: aire jarduerak, boxeo, arte martzialak, eskalada, espeleologia, urpekaritza, motor ibilgailuen karrerak, errugbia, hipika, zezenketa eta abelburu hezigabeen entzierroa, puenting, arroil-jauzia, rafting, edo antzeko izaera duen beste edozein.
- 16) Gizarte-arrazoietatik eratorritako medikuaren eta/edo ospitaleko asistentzia, adibidez: familian egokitasunik eza edo zailtasuna, ondorio edo egoera konponezinak.
- 17) Ostalaritza zerbitzuak, adibidez: telefona, telebista, hautazko edo lagunarentzako janariak eta erizaintza zerbitzu pribatua.
- 18) Gaixotasunaren prebentzioari, tratamenduari edo sendaketari laguntza eraginkorra ematen diotela behar bezala frogatuta ez duten prozedurak, hala nola hautabidezko medikuntzak, adibidez: naturopatia, hidroterapia, magnetoterapia, akupuntura, kiropaktika, digitopuntura, homeopatia, mesoterapia, presoterapia, ozonoterapia, etab., nahiz eta Aseguratuaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan.

- 19) Kanpoan geratzen dira berariaz, praktika orokorrekoak ez diren eta Osasunaren Sistema Nazionalean onarturik ez dauden prozedura diagnostiko eta terapeutiko guztiak, nahiz eta Aseguratzailaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan, Baldintza Orokorretan beren beregi sartuta egon eta dagozkien egokitzapenak Primetan eginda ez dauden bitartean.
- 20) Bainuetxeetan eta antzeko Zentroetan egoteagatik sortutako gastuak, nahiz eta Aseguratzailaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan.
- 21) Osatzeko helburua ez duten azterketa medikoak (miaketak), hala nola gida eta ehiza baimenak lortzekoak, aitatasun probak, etab.
- 22) Edozein diagnostiko-metodo: genetikoa, molekularra edo beste era batekoa; baita Asegurudunak edo bere ondorengoek alterazio genetikoei loturiko gaixotasunak pairatzeko alde zuzeneko joera edo diagnostikoa ezagutzeko mapa genetikoa ere, Polizako zerbitzuen deskribapenean espresuki zehazten den kasuetan izan ezik.
- 23) Terapia genetikoa, molekularra eta immunoterapia, hala nola zelula progenitoreekin egindako tratamendua.
- 24) Jaioberriari asistentzia medikoa, jaioberria Aseguratzailaren arauen arabera aseguratutako kasuetan izan ezik.
- 25) Parkinsonen eta Epilepsiaren gaixotasunen tratamendurako edozein teknika terapeutiko.
- 26) Diagnostiko teknikatik, tratamenduetatik eta/edo baliabideetatik eratorritako gastuak, Polizaren estalduran sartuta ez dagoen prestaziotik eratorriak edo horren ondorio badira.
- 27) Psikoanalisi, hipnosia, sofrologia, narkolepsia anbulatorioa, test psikologikoak eta loaren patologien ondoriozko tratamenduak.
- 28) Odontologian asistentzia, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 29) Laserra darabilten teknika kirurgiko eta/edo terapeutiko guztiak, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 30) Fisioterapia eta errehabilitazio tratamenduak errehabilitazio funtzional osoa edo gehiago posiblea lortu denean, edo mantentze okupazionalerako terapia bihurtzen denean.
- 31) Kirurgia robotikoko ekipamenduak erabiltzen dituzten teknika kirurgia guztiak, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 32) Uretako erditzeak, etxeakoak eta baliabide alternatiboak erabiltzen dituztenak, hala nola jaiotzeke dagoen haurraren interbentzio kirurgikoak.
- 33) Plaketetan edota hazkunde faktoreetan aberatsa den plasma.
- 34) Obesitatearen kirurgiaren ondoriozko ebakuntzak eta teknika endoskopiko bidezko obesitatearen tratamenduak.
- 35) Ganbera hiperbarikoaren bidezko tratamenduak.
- 36) Prozesu ez-onkologikoetarako erradioterapiako tratamenduak.

37) Elikagai-intolerantziaren testak, zerbitzuen deskribapenean berariaz jasotako tratamenduak izan ezik.

38) Proba vestibular konputarizatuak edo instrumentalak Bideonistagmografia, VIHT eta posturografia dinamikoa.

7. artikulua **Gabezia Aldiak**

Polizari jarraiki Aseguratuak bere gain hartzen dituen prestazio guztiak, Kontratua indarrean sartzen den une berean erraztuko dira.

Hala ere, printzipio orokor honetatik kanpo geratzen dira Baldintza Orokorretan eta/edo Partikularretan Gabezia Aldietara loturik agertzen diren asistentzia medikoa, kirurgikoa eta/edo ospitalekoa. Hauek ondoren zehazten diren Gabezia Aldiak beteak izan behar dituzte:

- Erregimen ambulatorioko ebakuntza kirurgikoek **sei (6) hilabeteko** Gabezia Aldia izango dute.
- Ospitalizazioak eta edozein arrazoiengatik egiten den ebakuntza kirurgikoak, bai ingresupean zein eguneko ospitalean, **zortzi (8) hilabeteko** Gabezia Aldia izango du.
- Estalduraren deskribapenean Gabezia Aldiari loturik agertzen diren prestazioak (5. Artikulua) **kasu bakoitzean zehazten den Gabezia Aldia izango dute.**

Aurretik jakin ezin den hil edo biziko larrialdi kasuan, Gabezia Aldiak baliogabetu egingo dira ospitaleratzea eskatzen duten zerbitzuetarako, Fakultatiboaren Informean oinarrituz.

Kasu partikularretan, Osasun-Galdetegiaren analisiaren eta/edo alde aurretik egindako Azterketa Medikoa onduz, beste Gabezia Aldi batzuk jarri ahal izango dira eta, kasua denean, Baztertzak ere bai. Gabezia Aldiak eta/edo Baztertzak Aseguratu bakoitzari banaka aplikatuko zaizkio.

8. artikulua **Zerbitzuak Emateko era**

- a) Asistentzia burutzeko, une bakoitzean Aseguratuaren Koadro Medikoa osatzen duten Osasun-Profesionalen eta Zentroen artean Fakultatiboa eta/edo Zentroa aukeratzeko askatasuna izango du Aseguratuak. Horiek zuzenean emango dizkiote beren zerbitzuak, autonomia osoz eta beren erantzukizun profesionalaren pean.

Frankiziar lotutako Polizaren estaldurak Aseguratuak berariaz adierazitako Osasun-Profesionalak eta Zentroak bakarrik emango dituzte.

- b) Fakultatiboaren edo Zentroaren aurrean Aseguratuaren identifikazioa, identifikazio pertsonalerako nahikoa den dokumentuaren eta Aseguratuaren txartelaren bidez egingo da, hala nola Aseguratuak une bakoitzean ezarrita dituen zerbitzuaren egiaztagiri dokumentuak ere aurkeztuta. Jasotako zerbitzua ziurtatzen duen ordainagiria sinatu ondoren, Aseguratuari kopia bat emango zaio egiaztagiri gisa.

Aseguratuak jasotako zerbitzu bakoitzeko, Baldintza Partikularretan ezartzen den kopago eta frankiziei dagokion zenbatekoa ordainduko du.

Kopagoei dagokienez, Aseguratzailerak aldian-aldian Aseguru Hartzaileari bidaliko dio Polizan sartutako Aseguratuak erabili dituzten zerbitzuen laburpena, horiei dagozkien kopagoen zenbatekoarekin batera. Zenbateko osoaren kobrantza Hartzaileak prima ordaintzeko emandako banketxe-kontura helbideratutako ordainagiriaren bidez egingo da.

Frankiziei dagokienez, Baldintza Partikularretan ezarritako zenbatekoaren ordainketa Aseguratuak zerbitzua baimentzeko eskaria egiten duen unean egingo da, Aseguratzailerak ezarritako baliabideak erabilia.

Aseguratzailerak kopago eta frankizien zenbatekoa eguneratu ahal izango du, Baldintza Orokorretan ezarritakoaren arabera.

Aseguratzailerak aldeztu aurretik emango die Aseguratuak sistemaren eta euskarriaren behin behineko aldaketaren xehetasunaren berri, edonola ere, asistentzia eskuratzeko eragingarri izango direnak, hurrengo atalean ezartzen diren arauen arabera.

- c) Aseguratuak librek hartu ahal izango dituzte Mediku Orokorra edo Familiakoaren Aseguratuaren Koadro Medikoa agertzen diren artean. Egindako aukera Aseguratuari jakinarazi behar zaio eta hautatutako medikuak onartu beharko du.

Asistentzia jasotzeko ezibestekoa da Mediku Orokorren edo Familiakoaren aurretiazko arreta Mediku Orokorra edo Familiakoak ematen duen asistentziak etxeko bisita barne hartzen du, gaixoaren egoerak Fakultatiboaren kontsultara joatea ezinezko egiten duenean.

Larrialdi kasuetan, hala nola bisita-ordutegietatik kanpo (8:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera), estaldurak Etengabeko Larrialdi Zentroetako arreta barne hartzen du edo, kasu denean, Aseguratuak hitzartuta daukan Etxeko Larrialdi Zerbitzuaren eskaera.

Mediku Orokorren edo Familiakoaren ustez asistentziak edozein Espezialitatearen orientazioa behar duenean, Aseguratuak Aseguratuaren Koadro Medikoa daudenean artean askatasunez hautatutako Espezialistarengana joango da.

Aseguratuak zuzen jo dezake Ginekologia, Oftalmologia eta Pediatriako Espezialitateetara.

Mediku Espezialistaren asistentzia beharrezko egin zuen gaixotasunak dirauen bitartean, gaixoak hasieran hautatutakoaren zerbitzuak baino ezingo ditu erabili, Mediku Orokorra edo Familiakoak oniritzitako kausa justifikaturik ez badago. Kasu honetan, Aseguratuaren Koadro Medikoa agertzen den beste Espezialista batengana bidali ahal da.

Helburu diagnostikoak dituzten proba edo araketa osagarrietarako, Mediku Orokorra edo Familiakoak, zein asistentzia bere kargura duen Espezialistak eskatzea ezinbestekoa da.

- d) Ospitaleratze-estaldurarako, dela Medikoa edo dela Kirurgia Anbulatorioko estaldurarako, eta diagnostikorako teknika berezietarako beharrezkoa da Aseguratuaren Mediku Taldeko Medikua baten eskaera. Era berean, Aseguratuak aldeztu aurretik estalduraren berrespena jaso beharko du; Aseguratuaren bulegoetan edo une bakoitzean ezarritako sistemaren bitartez (esaterako, preskripzio elektronikoen sistemarekin, Medikua xede horretarako prestatutako baliabide informatikoak erabiliz, Aseguratuari berrespena emateko dagokion eskaera egin ondoren, Aseguratuak berrespena bitarteko elektronikoen bidez jaso dezake, Aseguratuaren bulegoetara joan beharrik gabe.)

Hil edo biziko egoera larrietan, Medikua preskripzioarekin nahikoa izango da, baina Aseguratuak (edo Medikua berak, aurrez deskribatutako preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez) ahal bezain laster egoeraren berri eman beharko dio Aseguratuari – normalean hirurogeita hamabi (72) orduko epean)- beharrezko erantzuna jasotzeko xedearrekin: berrespena edo baztertea, Polizaren estalduraren arabera.

Erizaintza (Praktikantea) eta Anbulantzia Zerbitzuak eskatzeko Aseguratzaileak ezarritako Larrialdietarako Arreta eta Zerbitzuaren telefono zentralizatura deitu beharko da.

- e) **Aseguratzaileak ez ditu bere gain hartuko bereak ez diren Fakultatiboek edo Zentroek emandako asistentziak eragindako gastuak, asistentzia agintzen duen Medikua edozein dela ere. Halaber, ez du bere gain hartuko inolako ordainsari, araketa edo beste edozein zerbitzu motarik ere, hitzartutako Fakultatiboek edo Zentroek egindakoak izan arren, baldin eta gaixoen tratamendurako Aseguratzailearen Koadro Medikoko Medikuen ekimenez bakarrik agindutakoak izan ez badira.**

Aseguratzailearen Koadro Medikoko Mediku batek hitzartu gabeko Fakultatiboengana edo Zentroetara joateko gomendioa egin arren, ez du Aseguratzailea lotzen.

Aseguratzailearen Koadroko Mediku, Klinika edo Zentro batek ere ezin badu burutu Polizak estalduriko ebakuntza, miaketa edo tratamendu bat, asistentziaren estaldurak Aseguratuari asistentzia ematen dagoen Fakultatiboaren informea eta Aseguratzaileak aldeztu aurretik eta berariaz emandako baimena beharko ditu; horrela, egoera horri buruzko informazioa eskatu ahal izango die Koadroko beste Fakultatiboek. Baimena baldin badago, Aseguratzaileak ez du derrigorrezko loturarik izango Medikuek adierazitako Fakultatibo edo erreferentzia Zentroarekiko, eta aitortutako bermea duen beste aukera bat proposatu ahal izango du.

Halaber, *Koadroko Fakultatibo baten adierazpena eta Aseguratzailearen aldeztu aurretiko eta berariazko baimena beharko ditu* Aseguratzaileak hitzartutako asistentzia Nazionalaren Sareko Espezialista batekin elkarren arteko kontsulta burutzeko. Baimen hori bera beharko da aseguratzailearen jarduera-esparru geografikotik kanpo dagoen erietxe edo osasun-zentro batean asistentzia jasotzeko.

- f) Estalduraren xedea den asistentziaren beste arau batzuk:
- Aseguru honen ondorioetarako, ezbeharren berri eman dela ulertuko da Aseguratuak zerbitzua emateko eskatzen duenean.
 - *Etxeko zerbitzuen* estaldurari dagokionez, bidezko den kasuetan, *Polizaren agertzen denarekiko baino ez da egingo*, Aseguratzailearen jarduera-esparrutik kanpo gertatzen diren larrialdi zerbitzuen salbuespenarekin. Edozein helbide aldaketa idatziz jakinarazi beharko da eta Aseguratzaileak dagokion Polizaren Osagarria igotzeko beharra izango du.

9. artikulua Primaren Ordainketa

Aseguruaren Hartzailea, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 14. artikulua araber, Prima ordaintzera beharturik dago, Baldintza Partikularretan adierazitako moduan eta datan.

- a) Primaren izaera banaezina eta urtekoa
Prima bakarra da, urtekoa eta aldeztu aurretik ordaintzekoa, lehenengo epealdi aktuarialaren hasieran oso-osorik sortzen da; edo, egongo balira, luzapen bakoitzaren hasieran.

Hala ere, Baldintza Partikularretan eta Hartzailearen mesedetan, bere ordainketa zatitua itundu ahal izango da, Aseguratzaileak osorik kobratzeko daukan eskubideari kalterik egin gabe. Zatiketa hori ordainketa errazteko da, baina ez dio, inola ere, urteko Primaren batasunari eta banaezintasunari kalterik egiten.

- b) Lehenengo Prima

Lehenengo Prima edo berorren zati bat Kontratua sinatzen den unean sortuko da eta, une horretatik aurrera, osorik eskatu ahal izango da Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 15. artikuluaarekin bat etorriz. Hartzailearen erruz ordainduko ez balitz, Aseguratzailerak Kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du edo, Polizan oinarrituta, bide betearazlean Prima ordaintzeko eskatzeko. Edonola ere, Prima ezbeharrak gertatu baino lehen ordainduta egon ez balitz, Aseguratzailera bere betebeharretatik aske geratuko da, kontrako ituna dagoenean izan ezik.

c) Bigarrena eta Ondorengo Primak

Bigarrena edo Ondorengo Primak zein horren frakzioak ordaintzen ez badira, estaldura etenda geratuko da ordaindu gabeko lehenengo ordainagiriaren mugaegunetik hilabetera (edo ordainagiri bakarretik hilabetera, ordainketaren zatiketa itundu ez den kasuan) eta Aseguratzailerak aipatutako mugaegunetik sei hilabeteko epean ordaintzeko eskatzen ez badu, Kontratua iraungita dagoela ulertuko da. Hala ere, Kontratua etenda dagoenean Aseguratzailerak uneko Primaren ordainketa eskatzeko eskubidea baino ez du izango.

Kontratua aurreko baldintzen arabera konponduko edo iraungiko ez balitz, estaldurak efektua izango du berriz ere Hartzaileak zor dituen ordainagiriak ordaindu eta hurrengo hogeita lau orduen barruan.

d) Ordainagiriaren librantza eta helbideratzea

Aseguratzailera legez baimenduriko bere ordezkariak libratutako ordainagiriaren indarrez bakarrik dago behartuta. Aseguru honen Prima ordainagiriak berak igorriko ditu.

Ordainagiriak, gainera, legez aplikatu beharreko gainkargak, tasak eta zergak ere izango ditu.

Baldintza Partikularretan itundu ahal izango da Prima ordainagiriak Bankuetan, Aurrezki Kutxetan edo Kreditu Kooperatibetan irekitako kontuen bidez kobratzea.

Prima ordainagiriaren eta kopagoen helbideratzea ituntzen bada, aipatutakoa zabaltzearen, hurrengo arauak ezartzen dira:

1. Hartzaileak Bankuari edo Aurrezki Kutxari zuzendutako gutuna edo dokumentua emango dio Aseguratzaileri dagokion helbideratze agindua emanez.
2. Ordainagiri bakoitza bere mugaegunean ulertuko da ordaindutzat, salbu eta kobratzerakoan Hartzaileak emandako kontuan fondo nahikorik ez dagoenean. Kasu honetan, Aseguratzailerak Hartzaileari jakinaraziko dio ordainagiri bere esku daukala eta honek Aseguratzaileraren egoitzan ordaindu beharko du hamar (10) eguneko epean. Epe hori igarota, Primaren ordainagiriak ordaintzen ez diren kasuetarako aurreikusitako ondorioak gertatuko dira.
3. Poliza indarrean dagoen bitartean, Hartzaileak bere ordainagiriak helbideratzeko kontua edo finantza entitatea aldatu dezake, aldaketa horren berri alde aurretik emanez 1. atalean aurreikusitako moduan.

e) Hartzailearen erruz iraupen aldia bukatu baino lehen iraungitzen bada kontratua, kontsumitu ez den urteko Primaren zatia Aseguratzailereana izango da eta berri zor zaio.

10. artikulua

Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea

Aseguratzailerak Polizaren urteko berrikuntza bakoitzean honakoak egin ahal izango ditu:

a) Primen zenbatekoa eguneratu.

b) Frankizia eta kopagoei dagozkien zenbatekoa eguneratu eta aldatu.

c) Protesientzat ezarritako estaldura mugaren zenbatekoak eguneratu, kasua denean.

Aipatutako eguneratzeak alde batera utzita, eguneratze guztietan urteko prima Aseguratu bakoitzak duen adinaren arabera ezarriko da, berrikuntza bakoitzaren datan Aseguratzaileak indarrean dauzkan prima-tarifak aplikatuta. Aseguruaren Hartzaileak bere adostasuna adieraziko du horren ondorioz Primeren zenbatekoan agertzen diren aldaketekin.

Primen, frankizien eta kopagoen eguneratzeak kalkulu tekniko-aktuarialean oinarrituta daude. Kalkulu horiek beharrezkoak dira aseguruaren eskema finantzario-aktuarialean honako hauek duten eragina ezartzeko: osasun-zerbitzuen kostuen handitzea, Polizak estalitako prestazioen maiztasunaren handitzea, kontratua burutu ondoren, agertutako edota erabilitako berrikuntza teknologikoak bermatutako estalduran sartzea edota antzeko ondorioak dituzten bestelako gertakariak.

Aseguruaren Hartzaileak primen, frankizien edo kopagoen hurrengo urterako eguneratze hauen berri jasotzen duenean aukeratu ahal izango du edo Aseguru Kontratua luzatzea, eta horrek baldintza ekonomiko berriak onartzen dituela suposatuko luke, edo aribidean den urtekoaren mugaegunean amaitutzat ematea. Azken kasu honetan, bide frogagarri baten bidez jakinarazi beharko dio Aseguratzaileari zentzu horretan daukan borondatea.

11. artikulua

Aseguruaren Hartzailearen eta/edo Aseguruaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak

1. Aseguruaren Hartzaileak eta, kasua denean, Aseguratuak hurrengo betebeharrak dituzte:

a) Aseguratzaileari aitortu, honek emandako Galdetegiaren arabera, berak ezagutzen dituen eta arriskua balioztatzean eragina izan dezaketen egoera guztiak, eta horiek guztiak egiazkoak izan behar dira. Betebehar horretatik salbuetsita geratuko da Aseguratzaileak Galdetegia egiteko eskatzen ez badio edo, nahiz eta eskatu, arriskua balioztatzean eragina izanik ere Galdetegian agertzen ez direnean.

Aseguratzaileak Kontratua desegin dezake Aseguruaren Hartzaileari zuzendutako adierazpenaren bidez hilabeteko (1) epean, Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak datuak gorde dituela edo horiek zehatzak ez direla ezagutzen duen unetik zenbatzen hasita.

Aseguratzaileari dagozkio, doloa edo erru larria egon ezean, adierazpen hau egiten den unean aribidean dagoen denboraldiko Primak.

Ezbeharrak Aseguratzaileak goiko paragrafoan aipatzen den adierazpena egin baino lehen gertatzen bada, honen prestazioa hitzartutako prima eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko zitzaionaren arteko diferentziari proportzionalki murriztuko zaio. Aseguruaren Hartzailearen doloa edo erru larria balego, Aseguratzailea prestazioa bere gain hartzetik aske geratuko da.

b) Aseguratzaileari jakinarazi, Kontratua aribidean dela eta lehenbailehen, alde aurretik aurkeztutako Aseguruaren Osasun-Galdetegiaren arabera arriskua larriagotzen duten egoera guztiak, beren izaeragatik Kontratua egiterako unean Aseguratzaileak ezagutu izan balitu ez litzatekeelako kontratua egingo edo baldintza gaitzetan egingo litzatekeelako.

Aseguratzaileak Kontratua aldatzea proposa dezake, larriagotzearen berri eman zaion egunean zenbatzen hasi eta bi (2) hilabeteko epean. Kasu horretan, Hartzaileak proposamenaren berri

izan duen egunean zenbatzen hasi eta hamabost (15) eguneko epea du proposamena onartu edo ezetz esateko. Ezetz esaten badu, edo Hartzailearen erantzunik izan ezean, Aseguratzailerak, aipatutako epea igarotzen denean, Kontratua desegin dezake Hartzaileari horren berri aldeztatik aurretik emanda. Hartzaileak hamabost eguneko epe berria izango du erantzuteko eta egun horiek igarota, hurrengo zortzi (8) egunen barruan, behin betiko desegitearen berri emango zaio.

Halaber, Aseguratzailerak Kontratua desegin dezake Aseguratuari idatziz hilabeteko epean jakinarazita, betiere arriskua larriagoa dela jakin duen egunetik aurrera kontatzen hasita. Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak adierazpena egin aurretik ezbeharrak gertatuko balitz, Aseguratzailerak bere betebeharratik aske geratzen da Hartzaileak edo Aseguratuak fede gaitoz jokatu badu. Bestela, Aseguratzaileraren prestazioa hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziari proportzionalki dagokionera murriztuko da.

- c) Aseguratzailerari esanbidez eta Zuzenbidean aurreikusitako moduan jakinarazi kontratu honen ondorioz egin beharreko komunikazioetan egin nahi duen edozein aldaketa (helbide-aldaketa, esaterako), aseguruaren kontratatzean eman zituenez bestelakoak badira.
- d) Aseguratzailerari jakinarazi, ahalik eta arinen, Kontratu hau indarrean dagoen bitartean ematen diren Aseguratuaren altak eta bajak.

Aseguratuaren altak indarrean sartzen dira Hartzaileak edo Aseguratuak egindako jakinarazpen edo adierazpen dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, hala egoera berrira egokituko den Primari dagokionez, nola estalduraren hasierari edo eteteari dagokionez.

Aginduzko Osasun-Galdetegien emaitzak ikusita, Aseguratzailerak onarpena ukatu edo bazterketak ezarri ditzake eta, edonola ere, Gabezia Aldi Orokorrek edo Partikularrak aplikatuko dira, egongo balira.

Bizitzako lehen hilabetean alta eskatzen duten seme-alaba jaioberriei, eta Osasun Galdetegia aldeztatik aurretik bete ondoren, ez zaie aplikatuko amak duen gabezia aldia baino luzeagoa.

Jaioberriaren alta adierazitako epea baino beranduago jakinarazten bada, Aseguratuaren alta arautzen duten arau orokorrak aplikatuko dira.

Kontratua indarrean dagoela jakinarazitako Aseguratuaren bajak, edozein arrazoirengatik direla ere, Aseguratzailerari jakinarazten zaion unean izango dute ondorioa eta Aseguru Kontratuaren luzapena gertatzen bada sortzen diren Hurrengo Primak egoera berrira egokitzea ekarriko dute. Hala ere, Primaren banaezintasun printzipioari jarraiki, Aseguratuaren bajak ez dute inolako ondorioz izango jadanik sorturiko Primei dagokionez, nahiz eta Hartzailearen mesedetan Baldintza Partikularretan ordainketa zatituta egon.

- e) Ezbeharraren ondorioak gutxitzea, susperraldi azkarra izateko bere eskura dauden baliabideak erabilia. Aseguratzailerari kalte egin edo engainatzeko asmo argiarekin egin behar hori ez betetzeak, Aseguratzailerak ezbeharratik eratorritako betebeharrak guztietatik askatuko du.
- f) Subrogazioa Aseguratzaileraren alde eman eta erraztu, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 82. artikulua ezartzen duenaren arabera. Ondorioz, Aseguratzailerak, Kontratu honetatik sortzen zaizkion betebeharrak bete ondoren, ezbeharraren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideak eta ekintzak egikaritu ahal izango ditu ezbeharraren arduraren pertsonen aurrean asistentziaren gastuak berreskuratzeko helburuaz.

Aseguratzailerak ezingo ditu egikaritu Aseguratuaren kontra honek subrogatu dizkion eskubideak. Aseguratu izango da, bere ekintzekin edo ez-egiteekin, Aseguratzailerari subrogatzeko eskubidean egin diezazkiokeen kalteen erantzule.

Aseguratzaileak ez du izango subrogatzeko eskubiderik Legearen arabera Aseguratuaren erantzukizunari sorrera eman dioten ekintzak edo ez-egiteak burutu dituzten pertsonen kontra, ez eta Aseguratuarekin bizi eta berarekin hirugarren odolkidetasun maila zibilaren barruko senide, ildo zuzenean edo albokoan, guraso hartzaile edo seme-alaba adoptatua den ezbehar egilearen kontra ere. Arau honek, ordea, ez du eraginik izango erantzukizuna dolutik badator edo erantzukizuna Aseguru Kontratu baten bidez babesturik badago. Azken balizko egoera horretan subrogazioa bere hedaduran mugaturik egongo da aipatutako Kontratuaren terminoen arabera.

Aseguratzailea eta Aseguratua hirugarren erantzule baten kontra bat badatoz, berreskuratutako kobrantza bien artean banatuko da bakoitzaren interesen proportzioan.

- g) Kontratu indarrean dagoen bitartean, Aseguratuak edo Medikuek berak, preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez, eskatutako agiri eta informazio mediko guztia erraztu beharko dio Aseguratzaileari, eskatzen dituen prestazioen estalduraren kostua balioztatze aldera. **Aseguratzaileak eskatu ondoren, estaldura emateko prozesua etena geratuko da informazio guztia jaso arte. Gerora, Aseguratuaren eskutik edo Medikuek eskutik, preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez, jasotako informazio medikoaren ondorioz, edozein prestazio desegokia dela agerian geratzen bada, Aseguratzaileak Aseguratuari prestazio horren estalduraren kostua eskatu ahal izango dio.**
- h) Kontratu honetan sartutako medikuek eskainitako zerbitzuak erabili ahal izateko, Aseguratuak asistentzia jasotzeko beharrezko baimena eskuratu beharko du eta aipatu zerbitzuren bat erabiltzerakoan baimen-agiria erakutsi edo eman beharko du. Zerbitzu horiek erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da Aseguratzailearen espezialista baten preskripzioa eta baimena aurretik jasotzea.
- i) Aseguratuaren Txartela, Aseguratzailearena dena eta Aseguratu bakoitzari ematen zaiona, erabilera pertsonaleko dokumentua da eta ezin da eskuz aldatu. Galtzen, lapurtzen edo hondatzen bada, Aseguruaren Hartzaileak eta Aseguratuak ahalik eta arinen Aseguratzaileari jakinarazi behar diote.

Kasu hauetan, Aseguratzaileak Polizan agertzen den Aseguratuaren etxera txartel berria bidaliko du, galdutakoa, lapurtutakoa edo hondatutakoa baliogabetuz.

Halaber, Aseguruaren Hartzaileak eta Aseguratuak Polizan baja izan den Aseguratuaren txartela Aseguratzaileari bueltatzeko beharra izango dute.

Aseguratzailea ez da osasun txartelaren erabilera ez egokiaren edo iruzurrezkoaren erantzule egiten.

- j) **Aseguratuak bermaturiko prestaziorako eskubidea galduko du:**
1. Osasunari buruzko Galdetegia betetzean informazioa gorde edo zehaztasunik eza bada, doloa edo erru larria egon bada.
 2. Arriskua larriagotzeko kasuan, Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzaileari horren berri eman ez badio fede gaiztoz jokatzuz.
 3. Bermaturiko gertakizuna Prima edo, kasua denean, bere zatia ordaindu aurretik gertatu bada.
 4. Ezbeharra Aseguratuaren fede gaiztoagatik gertatu denean.
- k) Aseguruaren edozein dokumentu horretarako eskubiderik ez duen pertsonaren batek erabiltzeak, Aseguratzaileari erantzukizuna duen Aseguratua Polizatik kanpo uzteko ahalmena emango dio, dagozkion ekintza zibilei edo kriminalei kalterik egin gabe.

- l) **Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren betebeharra izango da asistentzia eskatzen deneko datan altan emanda dauden asistentzia hornitzaileen zerbitzuak erabiltzea. Helburu horretarako, Zerbitzuen Katalogoaren xehetasunak edota Koadro Mediko eguneratua kontsultatu ahal izango da Aseguratzailerearen bulegoetan, telefonoetan eta web gunean.**

2. Aseguruaren Hartzaileak eta, kasua bada, Aseguratuak, hurrengo ahalmenak dituzte:

- a) Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak, Kontratua aribidean denean, arriskua murriztu eta beren izaeragatik Kontratua egiterako unean Aseguratzailereak ezagutu izan balitu Kontratu hori baldintza hobegotan gauzatzeko aukera emango luketen egoera guztien berri eman ahal izango diote Aseguratzailerei. Kasu horretan, Primak estalitako aribidean den aldia bukatzean, hurrengo primaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztu beharko da; horrela egingo ez balitz, Hartzailearen eskubidea izango litzateke Kontratua bertan behera utzi eta jada ordaindutako primaren eta berez ordaindu beharko lukeenaren arteko aldea itzultzea, noiztik eta arriskua murriztu dela jakinarazi den unetik aurrera.
- b) Aseguruaren Hartzaileak Aseguratzailerei eskatu ahal dio, Poliza jaso eta hilaibeteko epean, honen eta Aseguru Proposamenaren edo adostutako klausulen artean dauden ezberdintasunak konpontzeko Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera; erreklamaziorik egin gabe epe hori igarota, Polizan agertzen denarekin ados egongo da.

12. artikulua

Aseguratzailerearen bestelako betebeharrak

- a) Kontratututako asistentzia emateaz gain, Aseguratzailereak Aseguruaren Hartzaileari emango dio Poliza edo, kasua bada, behin behineko estalduraren dokumentua edo Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokiona.

Era berean, Aseguratuaren Txartela emango dio Hartzaileari, dokumentu pertsonala eskuz aldatu ezin dena, Polizan sarturik dauden Aseguratu bakoitzari dagokiona.

- b) Poliza sinatzerako unean, Aseguratzailereak bizi den probintziari dagokion Koadro Medikoaren ale bat erraztuko dio. Aseguratzailereak fakultatiboan zerranda urtero eguneratu ahal izango du, fakultatiboan, profesionalen, ospitale zentroen eta zerranda osatzen duten gainontzeko establezimenduen alta edo baje bidez.
- c) Aseguratzailereak Hartzaileari epealdia amaitu aurretik guxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio Aseguru-kontratuan egindako edozein aldaketa.

13. artikulua

Aseguruaren Iraupena

- a) Aseguru Baldintza Partikularretan aurreikusten den denboraldirako hitzartzen da, eta besterik ezarri ezean, kontratatu den urteko abenduaren 31n bukatzen den aldirako.

Epemuga bukatuta, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 22. artikulurekin bat etorritik, urteko epeetan luzatzen joango da isilbidez. Dena den, **bi aldeetako edozeinek uka dezake luzapena beste aldeari idatzizko jakinarazpena bidaliz, aribidean den Kontratuaren aldia amaitu baino hilabete (1) lehenago gutxienez, Hartzaileak luzapenik nahi ez duenean, eta gutxienez bi (2) hilabete lehenago Aseguratzailereak nahi ez duenean. Hartzailearen jakinarazpena Aseguratzailerei egin behar zaio. Jakinarazpena hemen**

ezarritako moduan egiten bada, kontratua Baldintza Partikularretan hitzartutako epean edota urteko luzapen aldia bukatutakoan agortuko da, kasuaren arabera.

Aseguratua ospitaleratua balego, Aseguratzailerak Polizaren luzapenari uko eginez egindako jakinarazpenak ez du Aseguratu horrenaganako eraginik izango, ospitalean alta jasotzen duen eguna arte, salbu eta Aseguratuak tratamendua jasotzeko uko egiten badiu.

- b) Kontratututako estaldurek ez dute eraginik izango Primaren lehenengo ordainagiria ordaintzen ez den bitartean.

14. artikulua

Eskubideak galtzea. Kontratuaren Desegitea eta Eztabaidaezintasuna

1. Aseguratuak bermatutako prestazioaren eskubidea galtzen du honako kasu hauetan:

- a) Osasun-Galdetegia betetzean zerbait gorde denean edo zehaztasunik eza dagoenean (Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 10. artikulua). Aseguratzailerak Kontratu desegin dezake Aseguruaren Hartzaileari hilabeteko (1) epean zuzendutako adierazpenaren bidez, Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak informazioa gorde duela edota zehaztasunez eman ez duela jakiten duen datatik zenbatzen hasita. Aseguratzailerari dagozkio, bere aldetik doloa edo erru larria dagoen kasuetan izan ezik, adierazpen hau egiten duen unean aribidean dagoen aldiari dagozkion primak.

Ezbeharrak Aseguratzailerak goiko atalean aipatutako adierazpena egin aurretik gertatzen bada, honen prestazioa proportzionalki murriztuko da adostutako Prima eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz ezarritako litzatekeenaren arteko diferentziara. Aseguruaren Hartzailearen edo Aseguratuaren doloa edo erru larria balego, Aseguratzailerak prestazioa ordaintzeaz aske geratuko da.

- b) Arriskua larriagotzen bada eta Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailerari jakinarazten ez badiote eta fede gaiztoz jokatu badute (Kontratuari buruzko Legearen 12. artikulua).
- c) Arrisku bezala bermatzen den estalitako ezbeharrak lehenengo prima ordaindu aurretik gertatzen bada, kontrakoa itundu ez bada (Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 15. artikulua).
- d) Ezbeharrak Aseguratuaren fede gaiztoagatik gertatu denean (Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 19. artikulua).
- e) Asegurua eskatzean Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren jaiotza datari buruzko zehaztasunik gabeko adierazpena egiten bada, Aseguratzailerak Kontratuari uko egiteko aukera izango du, betiere Kontratu indarrean sartzeko unean Aseguratuaren benetako adina Aseguratzailerak ezarritako onarpen mugak gainditzen baditu.

Adinari dagokionean, zehaztasunez adierazten ez bada eta ondorioz ordaindutako prima ordaindu beharko lukeena baino txikiagoa balitz, Aseguratuak Aseguratzailerari prima gisa ordaindutako zenbatekoa eta bere benetako adinagatik ordaindu beharko lukeenaren arteko diferentzia ordaindu beharko dio.

Aitzitik, ordaindutako prima beharko lukeena baino gehiago bada, Aseguratzailerak jasotako primen gehiegizkoa bueltatu beharko du interesik gabe.

2. Aseguruaren Hartzaileak Kontratu desegin dezake honako kasu hauetan:

Koadro medikoa aldatzen denean, baldin eta Mediku Orokorrari edo Familiakoari, Tokologoari, Pediatrari edo Espezialista Koadroaren %50ari eragiten badio; erabakia Aseguratzaileari jakinarazi beharko dio bide frogagarri baten bidez. Arau hau ez da aplikagarria izango kausa justifikatuena ondorioz sorturiko ordezkapen iragankorrak direnean edo Teknika Kirurgiko Berezieta Medikuei, Odontologoei, Analistei eta Erradiologoei dagokienean.

Aldaketa horiek Kontratu desegiteko arrazoia suposatu dezaketenean, Aseguratzaileak Aseguruaren Hartzaileari horren berri eman behar izango dio derrigorrez gertatu eta hurrengo hogeita hamar (30) egun naturalen barruan. Hartzaileak jakinarazpenaren berri izan duenean zenbatzen hasi eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epean erabili ahal izango du desegiteko eskubidea.

Kontratu desegiteak ondorioa izango du Hartzaileak bide frogagarri baten bidez jakinarazpena ematen duen datako hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, eta Aseguratzaileak kontsumitu gabeko Primaren zenbatekoa itzuli beharko dio.

3. Polizaren eztaba daezintasuna.

Azterketa medikoa eginda balego edo eskubide osoak onartuak baleude, Poliza eztaba daezina izango da Aseguratuaren osasun egoerari dagokionez eta Aseguratzaileak ezingo dizkio ukatu bere prestazioak Kontratuaren burutze dataren aurreko gaixotasunak daudela alegatuta, beren beregi eta aipatu azterketaren ondorio gisa, Polizaren Baldintza Partikularretan salbuespena egiten denean edo eritasuna edo afekzioa Aseguratuak Osasun Galdetegi-Aitorpenean doloz ezkutatu duenean izan ezik.

Azterketa medikoa egin izan ez balitz eta eskubide osoak ere onartu izan ez balira, Poliza eztaba daezina izango da Kontratu indarrean sartu zenetik urtebete igaro denean, Hartzaileak edo Aseguratuak doloz jokatu duenean izan ezik.

15. artikulua Datu Babesa

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Aseguru-Kontratuaren 50/1980 Legearekin eta gainerako lege aplikagarrieekin bat, honakoa jakinarazten dizugu:

- 1) **Tratamenduaren arduradunaren nortasuna eta harremanetarako datuak:** IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, IFK zk. A-95321386 (aurrerantzean, "IMQ"). IMQrekin harremanetan jar zaitezke aurrez aurre edo postaz Bilboko helbidean (Bizkaia), k/ Máximo Aguirre 18 (bis), (PK 48011), edo emailaz: imq@imq.es.
- 2) **IMQko Datuak Babesteko Ordezkararen (DBO) nortasuna eta harremanetarako datuak:** IMQko DBOrekin emailaz jar zaitezke harremanetan: dpd@imq.es
- 3) **IMQk erabiltzen dituen datu pertsonalak:** IMQrekiko kontratu-harremana kontrolatu eta kudeatzeko beharrezkoak direnak eta, bereziki, identifikazio-datuak (izena, abizenak, sexua, egoera zibila, lanbidea, jarduera sektorea, gaitasuna, eta NAN), harremanetarako datuak (posta helbidea eta posta elektronikoa edo telefono zenbakia), fakturazio-datuak, osasunari buruzko datuak, genetikoak edo biometrikoak.
- 4) **Datu pertsonalak zertarako erabiltzen diren:** IMQk datu pertsonalak erabiltzen ditu (i) legezko obligazioak betetzeko, (ii) IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta -zerbitzuen berri emateko, eta (iii) bezeroek edo Aseguratuak eskatutako eta/edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko, baita ere, dagozkion zerbitzuak fakturatzeko beharrezko diren datuak erabili eta kudeatzeko.

Hain zuzen ere, Aseguru-poliza kontratatzeak eskatzen du IMQk garatu, bete, kontrolatu eta betearazteko Hartzailearen datuak erabili behar dituela, baita Aseguratuen eta/edo onuradunen datuak ere, datu sentsibleak barne (hala nola, Asegurua kontratatzeako eskatutako osasunari buruzko datuak). Erabilera horren barruan dago zure datuak IMQren ardurapean dauden fitxategietan edo datu-baseetan sartzea. Horretarako, IMQk zure datu pertsonalak erabili ahal izango ditu Aseguru Kontratua formalizatu baino lehen ere edo kontratua, arrazioa edozein dela ere, bukatu bada.

Mediku edo osasun prestazioak eskatu edo egitearekin eta/edo Poliza berritzearekin, Hartzailea (i) jakitun dago bere datuak eta berak adierazitako Aseguratuen eta/edo onuradunen datuak erabiliko direla, eta datu horiek nahiz kontratatutako Aseguru-poliza betearaztean sortutakoak partekatuko direla, hala badagokio, osasun-zerbitzuen emaleekin, hemen adierazitako baldintzei jarraituz kontratatu den Aseguru-polizarekin bat: eta (ii) adierazi eta bermatzen du Hartzaileak IMQri jakinarazitako titular guztien datu pertsonalak (hau da, kontratatutako Aseguru-polizaren Aseguratuen eta/edo onuradunen datuak) erabiltzeko baimena duela, hemen adierazitako baldintzei jarraituz. Berariaz jakinarazi dizkie agiri honetan adierazitako datuak erabiltzeari buruzko edukia eta kontratatutako Aseguru-polizaren edukia, eta konpromisoa hartzen du IMQri helarazteko, azken horrek hala eskatuta, atal honetan aipatzen diren Aseguratuen eta onuradunen idatzizko baimena (ii).

Jakinazten dugu ez dela profil komertzialetan oinarritutako erabaki automatizaturik hartuko eta ez dela scoring edo tarifakazio jarduerarik egingo.

5) **Tratamenduaren oinarri juridikoa:**

- (i) Datuak erabiltzeko oinarri legitimoa da aseguru-kontratua bete, betearazi eta kontrola egitea, baita IMQrekin eskatutako edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzea ere. Legeek ezarritako obligazioak ere bete behar ditu IMQk. Besteak beste: Aseguru Kontratuen 50/1980 Legea; Aseguru- eta Berraseguru-entitateen Ordenamendua, Gainbegiratzea eta Kaudimena arautzen dituzten 20/2015 Legea eta 1060/2015 Errege Dekretua; aseguruak banatzeari buruzko 2016/97 Zuzentaraua (EB); eta indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko araudia.

Legezko oinarri honek lehen aipatutako datuak erabiltzeari ere eragiten dio, honako hauetarako: ezbeharrak likidatzeko, arriskuen tarifakazioa eta hautespena ahalbidetuko dituen estatistika-lankidetzak aktuariala egiteko, teknika aseguratzaileko azterlanak egiteko, iruzurraren prebentzioa egiteko, segmentazioak egiteko, inkestak edo merkatu-azterketak edo bezeroak ez galtzeko eta/edo fidelizazio programak edo antzekoak egiteko (barne dago IMQk edo beste onuradun batek duten ahalmena inkestatik edo merkatu-azterketatik edo informazio- edo promozio-kanpainatik lortutako informazioa erabiltzeko edo, hala badagokio, inkestaren, merkatu azterketaren edo kanpaina informatikoaren edo sustapen-kanpainaren xede-publikoaren parametroak zehazteko). Era berean, legezko oinarri honek datuak erabiltzeari eragiten die Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari egindako telefono bidezko harremanak grabatuz, zerbitzua kalitate hoberekin ematen dela bermatzeko.

- (ii) Orobat, datuak erabiltzeko legezko oinarria da IMQren interes legitimoa IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta -zerbitzuen berri emateko (www.imq.es webgunean uneoro identifikatuta daudenak), edozein komunikabide erabiliz (adib., posta, telefonoa, faxa, komunikabide elektronikoak, etab.)

Edonola ere, kontuan hartu behar duzu beti erabil daitekeela jakinarazpen komertzialak jasotzearen aurkako eskubidea (aurrera go deskribatzen den bezala).

Era berean, legezko oinarri honek babesten du IMQk Aseguratuen eskura jartzen duen mediku-taldeko kideek zure datuen erabileran aplikazio informatikoak erabiltzea, informazio-sistematarako homogeneousak direnak, eta horrela, erraztu eta hobetu egingo da interesatuaren datuen kudeaketa IMQk eskaintzen duen mediko-taldearen barruan.

Interes legitimoan oinarritutako edozein tratamendu egiteko, IMQk datu pertsonalak, ohorea eta intimitate pertsonala nahiz familiarena babesteko duzun eskubidea errespetatzen du, eta errespetu hori bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

IMQn uste dugu, bezero zaren aldetik, arrazoizko aukera duzula guk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako produktu zein zerbitzuen berri izateko (betiere honako arlo hauei lotuta badaude: aseguruaren sektorea, osasun-asistentzia, asistentzia soziosanitaria, lan arriskuen prebentzioa, osasuna eta ongizatea).

6) **Zure datu pertsonalen hartzaileak:**

IMQk, tratamenduaren arduraduna den aldetik, ez dizkio zure datu pertsonalak hirugarrenei lagako, ez badago legezko obligaziorik edo salbu eta lagapena beharrezkoa bada kontratu-harremana betearazteko.

Aurrekoaren kalterik gabe, kontratua eta lege aplikagarriak betez, IMQk kasu behar-beharrezko datuak lagako dizkie honako hauei: (i) kontratatutako Aseguru-polizarekin bat zerbitzuak ematen dituzten osasun arloko profesionalei; (ii) kontratatutako Aseguru-poliza zuzen betetzeko IMQrekin koaseguru, berraseguru edo lankidetzat harremanak dituzten entitateei; (iii) agintariei; (iv) banku edo finantza-entitateei; (v) epaile edo auzitegiei; eta (vi) tratamenduaren arduraduneei.

Halaber, zerbitzua behar bezala emateko, eta kontratuaren ondoriozko harremana kudeatzeko, gerta liteke tratamenduaren arduradunek eta/edo profesional espezializatuek datu pertsonalak erabili behar izatea.

Arduradun horietako batzuk, "hodei-konputazioa" zerbitzuen emaileak barne, Europar Batasunetik kanpo egon daitezke edo Europar Batasunetik kanpoko baliabideak izan ditzakete; beraz, babes-maila baliokidea ez duten lurraldeetan. Horrelako kasuetan, hornitzaileek legeria aplikagarrian jasotako bermeak dituzte.

7) **Hirugarrenengandik jasotako datuak:** Polizarekin bat gerta liteke IMQk erabili behar izatea hirugarrenek jasotako bezeroaren edo Aseguratuaren datuak, osasunari buruzkoak, genetikoak edo biometrikoak barne, osasun zerbitzuen emaileek jasoak kontratatutako Aseguru-polizarekin bat.

Horrelakoetan, IMQk beharrezko informazioa besterik ez die eskatuko osasun-zerbitzuen emaileei, hain zuzen ere, legezko obligazioak eta kontratatutako Aseguru-polizan ezarritakoa betetzeko behar den informazioa, eta datuen proportzionaltasun eta minimizazio printzipioak errespetatuko ditu.

8) **Datu pertsonalak gordetzeko epea:**

Kontratu-harremanak dirauen bitartean gordeko ditu IMQk zure datu pertsonalak. Osatu gabe dauden aseguru- eskabideak, gehienez, 6 hilabetez gordeko ditu IMQk, salbu eta eskabidean epe luzeagoa adosten bada, eskabide berriak direla-eta, izapidetzeak birritan ez egiteko.

Behin kontratu-harremana bukatuta, IMQn zure datuak gordeko ditugu legeak ezarritako atxikitze epeetan edo IMQk erantzukizunak dituen epealdian, 10 urte, gehienetan. Epe horiek igarota, zure datuak suntsitu egingo dira, salbu eta datuok zeharo anonimizatu badira, araudiarekin bat, estatistika- edo ikerketa-helburuekin.

9) **Interesatuaren eskubideak:**

Interesatua bere datu pertsonalak erabili, zuzendu, ezabatu, mugatu eta aurkaratzeko eskubideen titularra da, baita horien eramangarritasunerako eskubidearena ere. Halaber, emandako baimena uneoro ken dezake interesatuak, eta horrek ez dio tratamenduaren zilegitasunari kalte egingo.

Tratamenduaren arduraduna den IMQk erabiltzen dituen datu pertsonal horiekiko eskubidea erabiltzeko, datuen titularrak honako kanal hauek erabil ditzake: (i) aurrez aurre IMQren edozein bulegotan; (ii) postaz k/ Máximo Aguirre, 18 bis, 48011 Bilbo, Bizkaia (bezeroarentzako arreta sailera zuzenduta); edo (iii) posta elektronikoz: imq@imq.es (atxiki behar duzu beti zure NANren kopia irakurgarria edo zure nortasuna ofizialki egiaztatzen duen beste agiri bat). Eskubideok erabiltzea doakoa da.

Tratamenduaren kontra eta agiri honetan adierazitako datuak lagatzearen kontra egonez gero, gauzatu gabe gera liteke Aseguratuen estaldura kontrakotasun horrek dirauen bitartean. Izan ere, kontra egoteak eragotzi diezaioke IMQri prestazioak kalkulatzeko eta Aseguru-Kontratuan ezarritako helburuak betetzeko eta araudi aplikagarriaren obligazioak betetzeko behar diren datuak izatea.

Era berean, uste baduzu IMQk ez dituela zure datu pertsonalak erabili araudi aplikagarriarekin bat, harremanetan jar zaitezke Datuak Babesteko ordezkariaren: dpd@imq.es edo erreklamazioa egin Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

16. artikulua

Erreklamazio-eskariak eta kontrola. Bezeroarentzako Arreta Saila

1. Aseguratzaileren jardueraren kontrola Estatu espainolari dagokio eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatu entitatearen kontrola egiteaz.
2. Hartzaileak, Aseguratuak, Onuradunak, Hirugarren Kaltetuak edo horietako edozeinen eskubidedunek Aseguru Kontratuari buruzko edozein erreklamazio egin nahi badute, berau konpontzeko zuzendu beharko dira:
 - a) Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros-en Bezeroaren Arreta Zerbitzura, hauetako bide bat erabiliz:
 1. Pertsonalki IMQren edozein bulegotan.
 2. IMQren egoitza sozialera bidalitako postaren bidez: Máximo Aguirre, 18-bis, 48011 Bilbo (Bizkaia), edo Gasteiz hiribidea, 39, 01008 Vitoria-Gasteiz (Araba), edo Euskadi Plaza, 1, 20002 Donostia (Gipuzkoa).
 3. Faxez 94 427 39 37 (Bizkaia), 945 14 47 65 (Araba) eta 943 32 78 93 (Gipuzkoa) zenbakietara.
 4. Posta elektronikokoaren bidez imq@imq.es helbidera (Bizkaia), vitoriagasteiz@imq.es (Araba), edo donostia@imq.es (Gipuzkoa).
Baliabide informatiko, elektroniko edo telematikoen bidez egindako aurkezpena baliogarria izango da betiere bere irakurmena, inprimatzea eta mantentzea baimentzen badu eta Araudian ezarritako baldintzak eta ezaugarriak betetzen baditu.
Aipatutako Sailak idatziz emango du aurkezten diren erreklamazioak jaso izanaren berri, eta arrazoizko idazkiaren bidez ebatziko ditu indarreko araudiarekin bat, aurkezten direnetik hasi eta hilabete bateko (1) epean.

Sailak, pertsona fisiko edo juridiko guztiek zuzenean edo izendatutako ordezkari bidez egindako kexak eta erreklamazioak konponduko ditu, aipatutako kexa eta erreklamazioak bere aseguru jarduerekin zerikusia duten legez aitortutako interes eta eskubideei badagozkio, prozedura edozein dela eta, hala nola Kontratuak, gardentasuna eta bezeroaren babesaren araudia edo praktika eta erabilera ona, ekitate-printzipioa bereziki.

Ebazpenetan Kontratuen Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezietan ezarritako betebeharrak eta eskubideak hartuko dira kontuan; jarduera aseguratzailearen legezko araudia (Aseguru Kontratuari buruzko Legea, Aseguru eta Berraseguru Erakundeen Antolamenduari, Gainbegiraketari eta Kaudimenari buruzko legea, Aseguru eta Berraseguru Erakundeen Antolamenduari, Gainbegiraketari eta Kaudimenari buruzko Errege Dekretua, eta aplikagarria den gainontzeko araudia).

- b) Erreklamazioaren prozedura administratiboa Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean ere hasi daiteke, paperezko euskarrian edo bide telematikoz <https://www.dgsfp.mineco.es/reclamaciones> webgunearen bitartez. Horretarako, erreklamazioa egiten duenak frogatu beharko du erreklamazioa Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan egin zenetik hilabete bat (1) (erreklamaziorik gabekoa baldin bada) edo hilabete bi (2) (gainerako egoeretan) igaro direla eta ez dela erabakirik hartu, edo bere onarpena ukatua izan dela, edo eskaria ez dela aintzat hartu.
- c) Edonola ere, erreklamazioa egiten duenak Epaitegi eta Epaimahai eskudunetara jo dezake (Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izanik).
- d) Halaber, aldeek euren desadostasunak bitartekariaren erabakipean jar ditzakete borondatez, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuan zein betearazteko arauetan ezarritako terminoetan. Edozein kasutan, aldeak tartekaritza sistemaren pean jartze hori borondatezkoa izango da eta idatziz beren beregi jarri behar da. Aurreikuspen horrek ez du, inolaz ere, bitartekariaren menpean alde aurretik jartzen denik esan nahi.
- e) Halaber, eta goiko atalean jarritakoari kalterik egin gabe, sortu diren edo sor daitezkeen zuzenbidearen arabera jarrera librekoak diren gai eztabaidagarriak ere jarri ahal izango dira tartekaritzaren menpean, Tartekaritzari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean ezarritako terminoetan.
- f) Era berean, desadostasunak konpontzeko bitartekari batengana jo ahalgo dute, gai zibilei eta merkataritza-gaien inguruko bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legeak aurreikusitako baldintzetan.

17. artikulua

Eskumena

Kontratu hau Espainiako eskumenaren menpe geratzen da, Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izango delarik.

18. artikulua Preskribapena

Kontratu honetatik eratorzen diren ekintzek **bost (5) urte** igaro ondoren ondoren preskribatuko dute, egin zireneko datan zenbatzen hasita.

19. artikulua Jakinarazpenak

Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailari egindako jakinarazpenak Polizan agertzen den egoitza sozialera egingo dira.

Aseguruaren Hartzaileak Kontratuan bitarteko den Agente edo Aseguru-artekari bati egindako jakinarazpenek, Aseguratzailari zuzenean egindakoen ondorio berberak izango dituzte.

Aseguratzailak Aseguru Hartzaileari edo Aseguratuari egin beharreko jakinarazpenak posta bidez, Polizan jasotako helbidera, edo hala eskatuz gero, elektronikoki edo telematikoki bidaliko dira, edo eskuragarri jarriko dira.

Hala ere, Aseguratzailak Hartzailearen edo Aseguratuaren helbidera bidali ahal izango ditu jakinarazpenak, horrela egitea justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

20. artikulua Urruneko kontratazioa

Urruneko kontratazioa egon dela ulertzen da urruneko komunikazio teknikaren bat erabili denean eskklusiboki aseguru negoziatzeko eta sinatzeko, Aseguratzaila (edo banatzailea) eta Hartzailea batera egon gabe fisikoki. Komunikazio horretarako bitarteko telematikoak (posta elektronikoa, weba eta abar), elektronikokoak, telefonikoak, faxa edo antzeko beste batzuk (esaterako: posta arrunta) erabil daitezke.

Aseguru urrutiko teknika baten bidez kontratatu bada, eta Aseguruaren Hartzailea merkataritza edo lan jarduerarekin lotutako asmorik gabeko pertsona fisikoa bada, Hartzaileak arrazoirik azaldu gabe eta zigorrik jaso gabe deuseztatu ahal izango du kontratua, aseguruaren kontratua egin eta hamalau (14) egun naturaleko epean, estali beharreko ezbeharririk gertatu ez bada.

Hartzaileak aldebakarreko ahalmen hori erabil dezake Aseguratzailari idatzia bidalita Máximo Aguirre kalea, 18 bis, 48011 Bilbo (Bizkaia) helbidera, edo posta elektronikoz imq@imq.es helbidera.

Kontratuan atzera egiteko eskubidea erabiltzen duen aseguruaren hartzaileak aseguruaren kontratua indarrean egon den epeari dagokion polizaren zati proportzionala ordaindu beharko du. Prima ordainduta egonez gero, Aseguratzailak prima itzuliko dio hartzaileari hogeita hamar (30) egun naturaleko epean gehienez ere, kontratua indarrean egon den epeari dagokion zenbatekoa kenduta.



Bezzeroarentzako arreta
900 81 81 50

ARABA

Vitoria-Gasteiz

Gasteiz etorbidea, 39

BIZKAIA

Bilbo

Bulego zentrala

Máximo Aguirre kalea, 18 bis

IMQ Zorrotzaurre Klinika

Ballets Olaeta kalea, 4

Getxo

Gobela kalea, 1

GIPUZKOA

Donostia

Euskadi enparantza, 1